


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOKO**  
**GRADUA**

2020-2021

**ERRUSIA ETA TXINA ARTIKOAN: Interesak eta  
estrategia kooperazio eta gatazkaren ikuspegitik**

**EGILEA: Julen Guttadauro Esturo**  
**ZUZENDARIA: Iratxe Perea Ozerin**

**2021ko Maiatzaren 26a**

*“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”*

**Laburpena:**

Artikoa garrantzi handiko eskualde bihurtzen ari da azken urteotan, eta etorkizunean zentraltasun gehiago izateko potentziala du. Klima aldaketak erronka zientifikoak, baina baita hainbat aukera zabaldu ditu Artikoan, itsasbide berriak eta esploratu gabeko errekurtsu naturalen ustiaketa esaterako. Txina eta Errusia dira aukera hau gehien aprobeztatzen saiatzen ari diren aktoreak eta beraz hauen helburuei adi egon behar zaie. Horrez gain, aktore hauen jarrerak zehaztuko du ea eskualdean nazioarteko gatazkarik gerta daitekeen, Nazioarteko Harremanen korrante errealistek auresango luketen bezala, edota herrialdeen arteko kooperazioa gailenduko den, Nazioarteko Harremanen eskola liberalak iragarri bezala. Hurrengo lana aurreko hau aztertzerako egongo da bideratua, hots, Txina eta Errusiaren Artikoko estrategia, jarrera eta bien arteko kolaborazioa ikertuko ditu, eta gatazka ala kooperaziorako joera nagusituko den ezagutzeko. Horretarako errealismo neoklasikoaren ikuspuntua batetik eta instituzionalismo neoliberalak, liberalismo komertziala eta interdependentsia konplexuarena bestetik uztartuko dira analisisian, errealitatea bi ikuspegietatik ulertzeko.

**Hitz gakoak:** *Txina, Errusia, Artikoa, NSR, errekurtsu naturalak, gatazka, kooperazioa, errealismo, liberalismo, nazioarteko harremanak*

**Abstract:**

The Arctic has become an important region in recent years, with potential for even more in the future. Climate change has opened up scientific challenges, but also opportunities in the Arctic, such as new shipping routes and unexplored natural resources. China and Russia are the actors who are trying to take advantage of these opportunities, and therefore we must pay close attention to their aims. In addition, the position of these actors will determine whether it is going to be international conflict in the region, as predicted by the realistic currents of the International Relations, or whether cooperation between countries will prevail, as the liberal school of International Relations would predict. The next pages are going to be focused on studying the strategy, attitude and collaboration between the two in the Arctic, China and Russia, in order to recognize whether they promote conflict or cooperation. For this purpose, the point of view of neoclassical realism on the one hand, and of neoliberal institutionalism, of commercial liberalism and of complex interdependence on the other, will be in united analysis in order to understand reality from both points of view.

**Key words:** *China, Russia, Arctic, NSR, natural resources, conflict, cooperation, realism, liberalism, international relations*

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
1. 1. Aztergaia	4
1. 2. Garrantzia	4
1. 3. Ikuspegi teorikoa	5
1. 4. Helburuak	6
1. 5. Hipotesiak	7
1. 6. Metodologia	8
1. 7. Egitura	8
<b>2. MARKO TEORIKOA</b>	<b>9</b>
2. 1. Geopolitika eta Geoestrategia	9
2. 3. Errealismo Neoklasikoa	10
2. 4. Instituzionalismo neoliberal, liberalismo komertziala eta interdependentzia konplexua	13
<b>3. TXINA</b>	<b>16</b>
3. 1. Txina Artikoan Eragile	16
3. 2. Txinaren Artikoko Interesak	19
3. 3. Txinaren Jarrera	21
<b>4. ERRUSIA</b>	<b>24</b>
4. 1. Errusia Artikoan Eragile	24
4. 2. Errusiaren Artikoko Interesak	26
4. 3. Errusiaren Jarrera	30
<b>5. KOOPERAZIO SINO-ERRUSIARRA ARTIKOAN</b>	<b>33</b>
5.1. Aurrekariak	33
5.2. Kooperazio ekonomikoa eta militarra Artikoan	35
5.3. Erronkak	37
<b>6. ONDORIOAK</b>	<b>39</b>
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	<b>42</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>51</b>

## 1. SARRERA

### 1. 1. Aztergaia

Potentzien interesak areagotu diren heinean Artikoa gatazka eta kooperazio gune bihurtu da azken urteotan. Hurrengo lana eskualdean interes gehien jarri duten aktoreak aztertzea bideratuta dago: Txina, eta batez ere Errusia (Sánchez Andrés, 2010, Rainwater, 2013, besteak beste). Hala, bi herrialdeen Artikoko estrategiak jorratuko dira hurrengo lanean, zonaldean beraien artean dauzkaten harremanekin batera, hauek gatazka edo kooperaziora bideratuta dauden jakiteko. Izan ere, bi gorabideko potentziek hainbat interes komun eta osagarri dituzte bertan.

### 1. 2. Garrantzia

Azken urteetan, eta bereziki XXI. medearen 10. hamarkadan, Artikoak nazioarteko planoan garrantzi handia hartu du. Aldaketa klimatikoak suposatzen duen globoaren tenperatura igoerak, hainbat ondorio latz ekarri ditu, adibidez, ekosistema glaziarrean, konponezinak diruditen kalteak eragin dira (espezie askok bere habitat naturala minimoetara murriztu ikusi duten heinean). Baina, era berean Lurraren berotzeak gizadiarentzako aukera berriak agerian jarri ditu. Artikoa da, hain zuzen ere, aukera berriez aprobeztatuko den eskualdeetako bat, hauek funtsean 3 direlarik (Amatulli, 2017):

- a) **Garraioa:** Shanghaitik Rotherdamerako bidea, egun Suezko Kanaleko Itsabidetik (SCR) egiten da normalean eta 60 egun inguru behar izaten dira. Iparraldeko Itsabidetik (NSR) berriz, gaur egungo Ozeano Artikoko merkataritza bide garrantzitsuetatik, 10 egun gutxiago behar dira eta kostua ere ia 400.000\$etan murrizten da (Wan, Ge eta Chen, 2018). Hala ere, oraindik itsasbide honetatik nabigatzea zaila da eta udako hilabete gutxi batzuetan egin daiteke bakarrik, izotzerako prestatutako itsasontzietan edo ontzi izotz-hausleen laguntzarekin. Baina adituek diotenez (Estrada, 2020: 6) 2050erako -baliteke 2030era aurretzea- guttiz nabigagarria izango da Ozeanoa, Itsasbide Transpolarrari ere aukerak zabalduz.
- b) **Errekurtso naturalak:** Agian garraio bideen gaiak baino garrantzi gutxiago izan dezake Artikoan munduko potentzia nagusiak egiten ari diren mugimenduak azaltzerako orduan, baina nabarmendu behar da milaka urte urtu gabe daramatzan izotzaren azpian Artikoa aberats dela errekurtso naturaletan. Bertan mineralez gain, petroleoa eta gas naturala aurki daitezke (1. Irudia).

- c) **Ikerketa zientifikoa:** Aldaketa klimatikoaren ebidentzia zientifikoak ukaezinak dira gaur egun, eta Artikoa bereziki eragiten du. Artikoauren urtze posibleak kostadun munduko herrialde guztiak eragingo lituzke, eta Asia erdialdean klima aldaketa bortitzak ekarri (Lim, 2018). Horregatik Artikoa hainbat zientzia-zentroyen bilgune bilakatu da (Rainwater, 2013), aldaketa klimatikoak nola eragiten dion eta hau nola gelditu daitekeen jakiteko helburuarekin.

Aurrekoaren ondorioz, zonaldearen garrantzi geostrategikoa handituz joan da, batez ere Errusia eta Txinaren eskutik. Errusiak alde batetik, bere Artikoko boterea NSRaren jurisdikzioaren bidez indartu nahi du (Estrada, 2020: 26), izan ere, itsasbide hau Errusiaren uretatik pasatzen da, eta herrialde soviatar ohiak kontrol zorrotzak ezarri ditu azken urteetan nabigaziorako, beste hainbat neurriren artean. Txina bestetik, “Artikoko Herrialde” ez den arren, gogor saiatzen ari da eskualdean eragina izaten. 2013tik Artikoko Kontseiluaren begirale da (Myers, 2013) eta begia bertan dauka jarrita hainbat ekimenekin, esanguratsuena Zetaren Bide Polarra izanik. Gainera, bi potentziek beraien arteko kooperazioa dute abian Artikoan (Miheeva, 2019), nolabaiteko interes partekatuak betetzeko asmoarekin.

Gaur egun, nazioarteko planoan Estatu Batuen hegemonia zalantzan jartzeko bidean ari diren Errusia eta Txinaren jarreretan sakontzea ezinbestekoa da bai Artikoan, zein garrantzi geopoitikoa duen beste edozein eskualdetan. Baina hasieran aipatutako guztiagatik, eta etorkizunerako zabaltzen diren aukera eta zihurgabetasunen harira, adibidez Errusiak hamarkada batzuetan errekursoengatik herrialdeen arteko gerra egon litekeela ohartarazi zuen (Kraska, 2010), zonalde honek garrantzi berezia du.

### 1. 3 Ikuspegi teorikoa

Esan bezala Artikoan bai gatazka zein elkarlana uztartu daitezke. Batetik, Txinak adierazi du, kooperazioa eta interes partekatuak bilatuko dituela, baina ez dituela printzipio hauek interes nazioanalaren aurretik jarriko (Rainwater, 2013). Bestetik, Errusiak ere bere interes nazionaleko helburuak lortzeko kooperazioa bultzatu nahi duela jakinarazi du (Sergunin eta Konishev, 2018), baina ez dizkio gatazkari ateak ixten, Artikoan zabaldu duen militarizazioa Jacob, 2018), egindako lurralde aldarrikapenak (Sánchez Andrés, 2010) eta lanean zehar ikusiko diren hainbat ekintza balizko gatazka baten adierazle izaki. Horregatik lan honek Nazioarteko Harremanen bi eskolaren ikuspuntuak uztartuko ditu: liberalismoa eta errealismoa.

Alde batetik, hurbilpen errealista eskola neoklasikoaren postulatueta oinarrituko da. Hots, bi potentzien politikak edo estrategia ulertzeko nazioarteko sistemaren presioak, baina baita presio hauek bideratuko dituzten Estatuaren barneko faktoreak kontuan hartuko dira. Izan ere, teoria honek Kenneth Waltzen neoerrealismoak utzitako zuloak betetzea du helburu, honek apropos bere nazioarteko sistemaren eredu esplikatzailetik Estatuaren barne faktoreak alde batera utzi baitzituen (Jordán, 2013). Hala ere, errealismo neoklasikoaren helburua ez da Waltzek nahi zuen teoria unibertsala, baizik eta Rosek (1998) dioenaren arabera, Estatu konkretuen kanpo politika azaltzea. Hori dela eta hautatu da errealismoaren korrante hau, hurrengo lanak arreta bi aktore konkretuk zonalde espezifiko baten duten estrategietan jarriko baitu. Gainera, marko teorikoan zehar zehaztuko den bezala, errealismoaren premisa orokorrak ere kontuan izango dira analisisian.

Beste aldetik, gerturatze liberala Robert Keohane eta Joseph Nye-ren interdependentzia konplexuaren eta instituzionalismo neoliberalaren teorien inguruan egingo da, beti ere liberalismo komertzialarekin lotuta. Teoria hauen planteamendu nagusiak dira, lehenik, Estatuaren arteko interdependentziak gatazka belikoaren aukerak murrizten dituela (Jordán, 2013), interdependentzia hau, ikusiko dugunez, Txina eta Errusiaren artean gero eta gehiago ematen ari da. Globalizazio neoliberalaren hasieratik harreman ekonomiko transnazionalak Estatuetatik at ere ematen ari dira, Enpresa Transnazionalak bezalako hainbat aktorek Estatuaren arteko interdependentzia eta loturak areagotu dituzte, nazioarteko planoan kooperazioa gatazkari gailendu zaiolarik. Bigarrenik, nazioarteko erakundeek estatuaren arteko lankidetzak eta gatazken kudeaketa bultzatzen dute (Jordán, 2013). Artikoaren gaian, liberalek Artikoko Kontseilua gaur egungo eta etorkizuneko gatazkek kudeatzeko organo baliagarri bezala onartuko dute. Honi Itsas Zuzenbidearen Nazio Batuen Konbentzioa (UNCLOS) bezalako nazioarteko legediaren antzekoak gehituta, zonaldean nazioarteko sistemaren ezaugarri den anarkia eta gatazka mugatuko direla adieraziko digute, potentzien interes komunak eta kooperazioa sustatuz.

#### **1. 4. Helburuak**

##### Helburu Orokorra:

Txinak eta Errusiak Artikoan dituzten helburuak eta interesak ikertzea, jarrera gatazkatsua edo kooperatiboa duten argitzeko

Helburu espezifikoak:

- a) Txinak jarrera gatazkatsua izan dezakeen argitzea.
- b) Errusiaren estrategietako bat indarra erabiltzea izan daitekeen ezagutzea.
- c) Txina eta Errusiak beraien artean Artikoan duten harreman mota aztertzea.

**1. 5. Hipotesiak**

- 1. NSRa eta bereziki hidrokarburoak dira Txina eta Errusiari interes gehien pizten dizkioten gaiak.
  - 1.1. Errusiak Artikoa SESBen garaian potentzia bezala zuen egoera berreskuratzeko erabili nahi du.
  - 1.2. Txinak Artikoan herrialdea hornitzeko energia baliabideen dibertsifikaziorako aukera dauka.
  - 1.3. Hidrokarburoen (saltzaile-erosle) eta garraiobideen alorrean bi herrialdeen helburuak bateragarriak dira eta horrek bien arteko kolaborazioa bultzatu du.
  - 1.4. NSReko garraioaren gaia da Txina eta Errusiaren artean gatazka piztu dezakeen puntua.
- 2. Bi herrialdeek nazioarteko ekimen, tratatu eta antzekoak baliatu nahi dituzte Artikoan aritzeko, printzipioz gatazka armatua sahiestuz.
  - 2.1. Txinak elkarrekiko onura bilatzen du bere kanpo politikan eta Artikoa ez da salbuespen bat.
  - 2.2. Txinaren interes nazionalak arrisku larrian baleude indarra erabiltzeko prest legoke.
  - 2.3. Errusiak, nahiz eta indar militarra baliatu dezakeen eskualdean duen boterea erakusteko, bere helburuak lortzeko kooperazioa eta diplomazia hobetsiko ditu.



## **1. 6. Metodologia**

Lan hau berrikuspen bibliografikoan oinarrituko da funtsean, horretarako lehenengo eta bigarren mailako iturriak baliatuz. Lehen mailako iturriak Estatuaren txostenak eta Estatuaren liburu zuriak (neoklasizismoan aktore nagusia) izango dira batetik, eta bestetik, nazioarteko sistemaren beste partaideen (nazioarteko erakunde publiko eta pribatuak) dokumentuak, nazioarteko ebazpenak edo legeak ere erabiliko dira (neoliberalismoak kontuan hartzen dituen heinean). Bigarren mailako iturri bezala berriz, artikulak akademikoak eta nazioarteko harremanetan espezializatutako aldizkariak baliatuko dira. Aukeraketa hauek lanak duen hurbilpen teorikoan sostengatuko dira, hots neoliberalismo eta errealismo neoklasikoaren arteko eztabaidan. Horrela, ikuspegi teorikoei lotutako bigarren mailako iturriak uztartuko zaizkie, eta azaldu denez, lehen mailako iturriei.

## **1. 7. Egitura**

Datozen orrialdeak sei kapitulutan bereiziko dira. Lehenengo kapitulua aurreko hau izango da; hots, sarrera. Bigarrenik marko teorikoa garatuko da, non eskola neoklasikoan eta neoliberallean sakonduko dugun. Hirugarren kapituluak Txinaren nondik norakoak azalduko dizkigu, honek Artikoan dituen helburuak argituz eta hori lortzeko duen edo izan lezakeen estrategia aztertuz, ondorio labur batzuekin bukatzeko. Laugarren kapituluak Errusiaren kasua argituko digu, aurreko egitura jarraituz. Bostgarrena Txina eta Errusiak komunean dituzten interesetan jarriko du arreta, hauen arteko kooperazioari helduz funtsean. Seigarrenik, amaitzeko ikasitakoaren ondorioak luzatuko dira, hipotesien egiaztapenarekin batera.

## 2. MARKO TEORIKOA

Arestian azpimarratu den bezala, lan honek fokoa Txina eta Errusiak Artikoan dituzten interesetan eta hauek lortzeko erabiliko dituzten estrategietan jarrita izango du. Garatuko diren interes hauek batik bat geografikoak izateak, geopolitika eta geostrategiaren oinarrizko kontzeptualizazioak egitera behartzen du lehenik. Hala, lanean interes eta jarrerei buruz hitz egitean, normalean Estatuaren geopolitika eta geostrategiaz arituko gara.

### 2. 1. Geopolitika eta Geostrategia

Geopolitika terminoa 1899an asmatu zuen Rudolf Kjellén geografo eta politikari sueziarrak. Honek Estatuaren gorputz organiko bezala ulertzen zuen, zeina hazi, garatu eta hiltzen zena, gizabanakoen eta nazioaren garrantzia azpimarratuz, hauek gabe Estatuaren ez baitzen existituko (Kristof, 1960). Hala ere, geopolitikaren hiru aintzindariak, nahiz eta aurrekariak Sun Tzu edo Tuzididesen ere koka daitezkeen, Karl Ritter, Friedrich Ratzel eta Sir Halford J. Mackinder direla onartu ohi da. Atenciok “*Qué es la geopolítica*” (1975) liburuan autorearen hauen geopolitikaren definizioak eratu zituen, izan ere autoreek ez zuten geopolitikaren definizio argi bat sortu bere idatzietan. Hurrengoak dira definizioak, Rosales-ek (2005) batuak<sup>1</sup>:

Karl Ritter: “*Geografía mundu bizidunaren zientziatzat hartuta, geopolitika munduaren alderdi moral eta materialak aztertzen dituen zientzia da, nazioen garapena aurreikusteko eta orientatzeko, faktore geografikoek eragin sakona dutelarik.*”

Friedrich Ratzel: “*Geopolitika, ezaugarri eta baldintza geografikoek, eta, bereziki, espazio handiek, Estatuaren bizitzan paper erabakigarria betetzen dutela eta gizabanakoa eta giza gizartea bizi diren luraren mende daudela ezartzen duen zientzia da, euren patua Geografiaren legeek erabakitzen dutelarik. Gidari politikoari gobernatzeko behar den zentzu geografikoa emanez.*”

Sir Halford J. Mackinder: “*Geopolitikak gertaera politikoak aztertzen ditu, mundua batasun itxiztat hartuz, non estatuaren garrantziaren arabera eragina duten. Alde horretatik, faktore geografikoek –nagusiki, estatuaren egoera, hedadura, biztanleria, baliabide eta komunikazioek – garrantzi handia dute, eta kontuan hartu behar dira kanpo politika bideratzeko orduan.*”

(Rosales, 2005: 28)

Hala, geopolitika, bere hastapenetatik hona Estatuaren kanpo politikako helburuekin izan du harremana. XX. mendearen hasieran pentsamolde inperialistaren muinetako bat bihurtu zen;

---

<sup>1</sup> Lan honetako aipu guztiak autoreak itzuli ditu.

horrek, Bigarren Mundu Gerrako Ardatzeko potentziakin izan zuen loturarekin batera geopolitika urte batzuetan baztertua geratzea ekarri zuen, 1960. hamarkadara arte hain zuzen ere (González, 2018). Esanahiak askotarikoak izan arren, geopolitikaren aztergaiak nazioarteko agertokiaren antolaketari lotuta egoten jarraitu du, beti ere espazioaren ikuspegitik (Parker, 1985). Jorge Atencio koronelak (1975) honela definitu zuen: *“Geopolitika faktore geografikoek estatuen bizitzan eta bilakaeran duten eragina aztertzen duen zientzia da, ondorio politikoak ateratzeko.”*

Aurreko guztia argituta, lan honek geopolitikak Estatuaren borondatearen helburuak zeinek diren finkatzen duela kontuan hartu. Geoestrategiak berriz, helburu hauek lortzeko modu egokienak zeintzuk diren aztertuko du, arrazionalismoan oinarrituz dauden bitartekoekin emaitza onenak lortzeko (Alonso, 2010). Geoestrategiak hortaz, helburuak lortzeko beharrezko diren jarduteko erak ezarriko ditu, helburu estrategikoak geografiarekin uztartuz (Jiemian, 2014). Adibidez, geoestrategia izango litzateke merkataritza bide, ibai, irla edo itsaso batera sarbidea zihurtatzea; horregatik urteetan zehar geoestrategia ekintza militarrei lotuta egon da. Hala ere, Jiemianek (2014) geoestrategiaren kontzepzio aurreratu eta eguneratuagoa behar dela azpimarratzen du gaur egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko (aldaketa klimatikoa esaterako).

Beraz, esan bezala, hurrengo lanean Txina eta Errusiak Artikoan duten geopolitika eta geoestrategia aztertuko dira; hots, interes nazionalak eta hauek lortzeko bideak. Hala ere, bide hauek, Jianmenekin bat etorriz, gaur egun ez daude armadarekin bakarrik lotuta, indarraren bidea XXI. mendean erresiduala baita, eta garrantzitsuagoak dira potentzien aliantza ekonomikoak edo nazioarteko organismoetan duten statusa adibidez. Beraz, ahalik eta informazio gehien barne hartzeko geopolitika eta geoestrategiaren analisisa, hasieran mahaigaineratu bezala, alde batetik nazioarteko harremanen eskola errealista neoklasikoan eta bestetik eskola liberalaren korrante instituzionalista neoliberallean, liberalismo komertzialean eta interdependentzia konplexuan oinarritua egongo da.

### **2. 3. Errealismo Neoklasikoa**

Errealismo neoklasikoa, antzeman daitekeenez, eskola errealistaren korronteetako bat da. Errealismoa Nazioarteko Harremanen historian errotuen dagoen teoria da, izan ere, honen printzipioak Sun Tzu, Tuzidides, Makiavelo, Hobbes, Rousseau edo von Clausewitzten ikus daitezke (Moure, 2015: 61). Hala ere, errealismoa kontzeptu bezala II. Mundu Gerra baino hilabete batzuk lehenago asmatu zuen Edward Hallett Carrrek (2016) (errealismo klasikoa

deituko zena), zeinek Nazioarteko Harremanetako adituak bitan zatitu zituen: utopikoak eta errealistak. Carren (2016) aburuz, korrante errealistak errealitatea den bezala deskribatu eta azaltzea du helburu, ez hau nola izan beharko litzatekeen, inolako balorazio moraletan sartu gabe. II. Mundu Gerratik aurrera eskola honek diziplinan nagusigoa hartu zuen eta urteetan zehar hainbat korrante errealista sortu ziren (lehendabizikoa errealismo klasiko bezala izendatu ohi da); garrantzitsuenak: 1) Neoerrealismoa, Kenneth N. Waltzek sortua, etorkizuneko korrante errealisten sorburu izango zena; eta neoerrealismotik 2) errealismo defentsiboa, 3) ofensiboa eta analisi honetan erabiliko den 4) errealismo neoklasikoa. Alabaina, errealismoaren korrante guztiek lau printzipio partekatzen dituzte (Wohlforth, 2010: 133, Jordán, 2013n).

Taldearen garrantzia: Politika kolektiboen artean egiten da, bai Estatuaren barruan, bai nazioartean, eta talde-kohesiotik eratorritako dinamikek gatazkak sor ditzakete beste talde batzuekin. Gaur egun, erreferentziazko giza taldea Estatu da.

Egoismoa: Gizabanakoen eta taldeen jardun politikoa interesak zuzentzen du nagusiki. Egoismoa giza izaeran errotuta dago, nahiz eta bere agerpena handiagoa edo txikiagoa izan daitekeen (eskuzabaltasunera ere heldu daitekeelarik) baloreen, egitura sozialen eta erakundearen arabera.

Anarkia: Munduko gobernurik ez dagoenez, autotutoretza (edo autodefentsa) eta eragile kolektiboen egoismoa sustatzen dituzten dinamikak sortzen dira nazioarteko helburuak lortzeko orduan.

Botere-grina: Taldeen nagusitasunaren, norberekoikeriaren eta anarkiaren arteko elkarguneak nazioarteko harremanak boterea eta segurtasunaren bilaketara bideratuta izatea daramatza.

Aurrekoa horrela, funtsean esan daiteke teoria errealistek nazioarteko errealitatea azaldu nahi dutela Estatuaren boterean eta gatazketan fokatuz (Abdallah, 2016).

Errealismo neoklasikoan sakontzeko, lehenik eta behin errealismoaren korranteen arteko desberdintasunak ulertzea da beharrezko, eta hau hiru analisi mailen edo Kenneth N. Waltzek (2007) irudi deituko zionen bidez azaltzen da hobekien. Lehenengo maila gizabanakoaren maila da, kanpo politikan eragiten duten eliteena hain zuzen ere. Bigarren maila Estatuaren maila litzateke, hau da, honen botere grina nazioartera eramaten duen egitura agregatua. Azkenik, hirugarrena nazioarteko sistema litzateke. Morgenthau errealista klasikoak adibidez,

lehenengo mailari eman zion garrantzi gehien, gizabanakoaren natura baitzen bere ustez nazioarteko harremanen gakoa. Kenneth N. Waltzek oster, bere teoria neoerrealistan hirugarren maila bakarrik hartzen du kontuan, Nazioarteko Harremanen teoria ahalik eta sinplifikatuena bilatzen zuen heinean. Eta aukera hau da, hain zuzen ere, eskola honen korronteen eboluzioaren gako. Izan ere, errealismo ofentsibo eta defentsiboak, eta batez ere errealismo neoklasikoak Waltzen teoria betetzea du helburu.

Bere aldetik, errealismo neoklasikoak, lehenbiziko aldiz 1998an Rosek aipatua, beste korronte errealistek ez bezala, Estatu kanpo politikak azaltzeko nazioarteko maila eta maila nazionala uztartzen ditu (Rose, 1998). Neoerrealismoak markatutako bidea jarraituz, nazioarteko sisteman dagoen botere banaketa erreferentziazat hartzen duen arren, Estatu portaera barne faktoreek baldintzatzen dutela sostengatzen du, esaterako: instituzio eta egitura nazionalak, barne prozesu politikoak, ideologiak, liderren bisio eta nahiek, kohesio sozialak... (Pérez de Armiño, 2015); hau da, hirugarren analisi mailari lehenengoa (eliteen ikuspegia) eta bigarrena (Estatuaren egitura) uztartzen dizkio, azken hitza hirugarren irudiari utzi gabe (Moure, 2015). Hala, errealismo neoklasikoak nazioarteko sistemaren presioek Estatuaren jarrera aldatuko dutela ukatzen du, neoerrealismoari aurre eginez; uste baitu presio sistematikoak Estatuaren portaeran duen eragina hauek sistema anarkikoan duten botere erlatiboan eta barne faktoreek mugatuta egongo dela (Firoozabadi eta Ashkezari, 2016). Honekin, errealismo neoklasikoaren jarraitzaileek diote korronte hau beste errealismoak baino zuzenagoa dela Estatu kanpo politika aurreikusterako orduan, aldagai gehiago hartzen baititu kontuan. Mourek (2015) Zakaria aipatzen du, honek oso ondo adierazten baitu *“teoria egoki batek lehendabizi nazioarteko ordenak Estatu baten kanpo politikan nola eragiten duen aztertu beharko luke beti, hau baita Estatu ororen ezaugarri orokor garrantzitsuena (...) baina ez luke inoiz ez barne politika, ez kultura nazionala, ezta eliteen jarrera , alde batera utzi behar”* (Moure, 2015: 92). Hala, errealismo neoklasikoak ezinbestean egiten duena da hirugarren irudia lehenengo eta bigarren irudien betaurrekoekin begiratu, hau da, nazioarteko sistemaren eragina Estatuaren egitura eta eliteen jarreraren filtroarekin begiratu. Firoozabadi eta Ashkezariaren (2016: 99) arabera, errealismo neoklasikoaren indargunerik garrantzitsuena, aldi berean, sistema- eta unitate-faktoreei eta azalpen historikoei ematen dion arreta da. Honek, teoria hau errealismoaren beste bertsio batzuk baino baliogarriago bihurtzen du nazioarteko harremanak ikertzerako orduan.

Hala, esan bezala lan honek Txinak eta Errusiak Artikoan duten geopolitika eta geoestrategia aztertuko ditu, errealismo neoklasikoarekin lotuta baitaude kontzeptu hauek. Batez ere bi

herrialde hauetan nazioarteko sisteman daukaten posizio gorakorraz gain, bai Xi Jinpingek, bai Putinek, bai biek ala biek atzean duten egitura instituzional nazionalak, historiak, bai kultura nazionalak, beste gehiagoren artean, garrantzi berezia baitute.

#### **2. 4. Instituzionalismo neoliberala, liberalismo komertziala eta interdependentzia konplexua**

Era berean, instituzionalismo neoliberala, liberalismo komertziala eta interdependentzia konplexua Nazioarteko Harremanen eskola liberalaren korrante garrantzitsuenetarikoak dira. Eskola liberalaren aintzindariak Locke, Bentham eta batez ere Kant eta bere betiereko bakea (eta honen hiru kontzeptualizazioak: errepublikarra, liberala eta komertziala) dira.

Liberalismoa errealismoari alternatiba bezala jaio zen, eta bigarren honek bezala nazioarteko harremanen historiako puntu determinatu batzuetan oso eragin handia izan du, momentu horietako nazioarteko errealitatea azaltzeko gai zen heinean. Batez ere bi mundu gerren ondorengo ordenetan izan du influentzia, legeak gidatutako eta kooperazioa posiblea den nazioarteko ordena baketsua bilatzen baitzen. Asmo berberarekin, Gerra Hotzaren ostean Munduko Ordena Berriaren oinarriak teoria liberalarekin aztertu izan ohi dira. Liberalismoaren postulatuak Wilson AEBko presidentearen hurrengo helburuaren inguruan eraikitzen direla esan daiteke: “mundu seguruago bat bilatu demokrazia loratu dadin” (Grasa, 2015). Eskola honen hasierako tesiak, eta bere korrante guztiek argi eta garbi partekatzen dituztenak hiru dira:

1. *Estatu eta gizarteek aurrera egiteko duten gaitasunari buruzko konfiantza, baldin eta hauen antolaketa moduak egokiak badira, bereziki, komunikazioari dagokionean. Aitzitik, erakundeak ez badira egokiak, giza izaera kontraesaten da eta ez da posible ontasuna, egia, justizia eta bakea gauzatzea.*
2. *Zenbait gizarte-taldek estatuetan duten nagusitasunari lotutako estatuen lehentasunek -eragileen arteko elkarrekintza erregularretik sortutako erakundeetan eta erakundeetan gorpuztuta daudenak-, nazioarteko gizarteak aurrera egin dezan lagundu dezakete, iritzi publikoaren laguntzarekin batez ere, jokabide-moldekatzaile handia baita, eta balioak eta printzipioak aldatzeko motorra.*
3. *Eta garrantzitsuena, nazioarteko harremanak gatazkatsuak baino gehiago kooperatiboak izan daitezkeen uste sendoa, eta hori dela eta, nazioarteko gizartean, pixkanaka, bakea, demokrazia eta justizia nagusitzen joango direla.*

(Grasa, 2015: 102-103)

Alde batetik, instituzionalismo neoliberalak, errealistek ez bezala, nazioarteko politikaren egituraketan nazioarteko erakundeek duten papera aldarrikatzen du, hauek inguru kooperatibo eta baketsuago bat eratzen baitute. Hala ere, Robert Keohane (2011) eta Robert Axelrodek garatutako teoriak (1997) dio kooperazio hau ez dela erakundeetan jaiotzen, Estatuetan bertan baizik. Instituzionalismo neoliberalak erakundeek Estatuaren jarrera eta lehentasunetan eragin dezaketela uste du, eta gainera gatazken ebazpen baketsua sustatu. Axelrodek (1997) azpimarratzen zuen bezala, bi faktore behar dira kooperazioa gatazkaren aurrean hobesteko: elkarrekikotasuna eta etorkizunean kooperazioa errepikatzeko itzaropena; eta eredu instituzionalak biak sustatzen ditu beste hainbat onuraz gain. Adibidez, erakundeek koordinazioa eta konfiantza errazten dute anarkiaren ondorioak lehunduz, erakundeek portaera-arauak ezartzen dituzte eta anbiguitasunak gutxitzen dituzte, erakundeek aktoreen lehentasunei eragiteaz gain, haien nortasuna ere moldatzen dute... Hala, lan honetan instituzionalismoak nazioarteko sisteman dauden konbentzio, arau eta erakundeek mugatzen dituzten portaerak ulertzen laguntzen du.

Aurreko ideiak liberalismo komertzialarekin osagarri dira. Teoria honek aldarrikatzen du, jarduera ekonomikoa askoz errentagarriagoa dela aberastasuna eta boterea lortzeko orduan, gerrak edo bestelako jokabide hertsatzaileek baino. Horrela, merkataritza eta bakearen arteko lotura egiten da. Hala, integrazioa bezalako dinamika berriak agertzen dira nazioarteko sisteman. Merkataritzarako oztupoak pixkanaka kentzeak eta kooperazio ekonomikoaren areagotzeak aukera handiak ematen ditu, neurri handi batean logika funtzionalista batean oinarrituta, interes komuneko eremu berriak sortzeko, eta, hartara, Estatuak lankidetzan aritzera bultzatzen dira, nahiz eta tradizioz elkarren aurka borrokatu izan diren (Abad, 2019). Printzipio hauek Keohane eta Nyeren (2017) interdependentzia konplexuaren kontzeptuarekin egiten dute bat; hots, Interes ekonomiko partekatuen sare trinko bat egoteak gerra aukera kaltegarri bihurtzen du boterea eskuratzeko orduan. Gainera, gobernuen arteko harremanetatik at, nazioz gairako komunikazio bide ugari daude eragile pribatuen artean, gizartearen arteko interdependentzia areagotzen dutenak. Harreman ekonomikoek, interes komunak sortzeaz gain, gobernuen eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko komunikazioa eta elkar ulertzea sustatzen dute, eta horrek, aldi berean, izaera kooperatiboko harreman politikoak errazten ditu. Horrela, bi estatuaren artean indarra erabiltzeko probabilitatea murriztu egiten da haien interdependentzia konplexua handitu ahala (Jordán, 2013).

Beraz, analisi honetan ezinbestekoa da hau ulertzea, Txina eta Errusiak botere militarra erabiltzeko orduan mugak baitituzte. Bai Errusiak, bai bereziki Txinak bere nazioarteko

boterea kanpo-harreman ekonomikoetatik lortzen dute eta beraz kooperazioa sustatzen dute gatazkaren aurretik.



### 3. TXINA

Analisia hasteko oinarriak finkatuta daudelarik, arestian aipatu bezala Txinaren Artikoko estrategiari helduko diogu lehenik. Horri, Txinako Herri Errepublikako (THE) Gobernuak 2018an argitaratu zuen Liburu Zuria (*“Txinako Estatu Kontseilua, 2018”* bezala aipatua izango dena) den jarduteko gidak dioenaren azterketarekin emango zaio hasiera. Baina, aurretik Txinak “Artiko” bezala zer ulertzen duen argitu behar da. Izan ere, hasieran esan den moduan, Asia hego-ekialdeko herrialdeak Artikoko Kontseiluan begirale bezala parte hartzen duen heinean *de facto* erakunde honen Artikoaen definizioa onartzen du (Xinmin, 2019). *Arctic Portalek*, Kontseiluaren organo kontsultibo denak, Artikoa Zirkulo Polar Artikoaen sinonimo bezala planteatzen du funtsean: *“Zirkulo Artikoa (66° 33’ 44” Iparra): Artikoko Zirkulua eguzkia 24 orduz ortzimugaren gainetik edo azpitik egon daitekeen Ipar Hemisferioan hegoalderago dagoen latitudea da.”*<sup>2</sup>. Hala nola, Txinak berak, aztertzeke gauden Liburu Zurian aurrekoa onartu eta hurrengoa gehitzen du: *“Nazioarteko zuzenbidean Artikoa Ozeano Artikoaen ondoko Europa, Asia eta Amerikan iparrerago dauden lurralde kontinentalak eta irlak barnebiltzen ditu, eta horrez gain, jurisdikzio nazionalako itsasoak, itsaso zabalak eta Ozeano Artikoko zonaldea”* (Txinako Estatu Kontseilua, 2018: 2).

#### 3. 1. Txina Artikoan Eragile

Hiru eratan justifikatzen du Txinak bere Artikoko presentzia. Lehenik, herrialdearen Artikoko politiken norabidea zehazten duen Liburu Zuriak Artikoaen egoerak, azken urteotan, aldaketa sakona jasan duela aldarrikatzen du, batez ere berotze globalaren ondorioz, orain arte Estatu Artikoen artekoak edo erregionalak ziren interesak inpaktu globalekoak bilakatu eta nazioarteko komunitatera zabalduta omen baitira (Txinako Estatu Kontseilua, 2018). Erraldoi asiarrak bere burua “Artiko ondoko estatutzat” dauka. Posizio hau sostengatzen du Artikotik hurbilenetarikoa Estatu kontinentalak dela azpimarratuz, eta horregatik, Artikoko egoera naturalean eman daitekeen edozein aldaketak Txinako ingurune naturalean eta era berean honen nekazaritza, abeltzantza, baso edota itsas-industrian eragin zuzenak dituela azpimarrantzen du (Txinako Estatu Kontseilua, 2018). Gainera, Txina munduko herrialde populatuena da eta ondorioz aldaketa klimatikoak gehien eragingo duenetarikoa (Lim, 2018). Esan daiteke beraz, bere lehen argudioa Artikoa herrialdearen gain duen eragin fisikoan oinarritzen duela. Hala ere, Txina bezalako “Artikoz kanpoko estatuek” (*“non-arctic states”* terminoaren itzulpena) honen lurren gaineko inongo subiranotasunik ez dutela aldarrikatzen

<sup>2</sup> Arctic Portal-etik berreskuratua <https://arcticportal.org/about-us> [Kontsulta eguna 2021/04/06]

du Liburu Zuriak, hau Kanada, Danimarka, AEB, Finlandia, Islandia, Norvegia, Errusia eta Suediak soilik dutelarik.

Baina, aipatutako subiranotza lurraldera (lur masetara) mugatzen du, izan ere, testu osoan zehar Ozeano Artikoaren gainean nazioarteko zuzenbidearen eta nazioarteko tratatuen lehentasuna azpimarratzen du Txinak. Txinatarrek beraz Ozeano honek munduko beste laurak duten *status* legal berbera izatea aldarrikatzen dute, nazioarteko legedia izanik bere presentzia justifikatzeko bigarren argudioa. Nazioarteko zuzenbidearen arabera, Artikoz kanpoko estatuak gainera hegan egiteko, nabigatzeko, ikerketa zientifikorako, arrantzarako, itsaso zabalean urpeko kable eta hodiak jartzeko, errekurtsio bilaketarako edota errekurtsioen ustiaketarako eskubidea izan beharko lukete. UNCLOSeko itsaso zabalaren askatasunaren erregimena Ozeano Artikoan aplikatuz gero, Txinak gehien bat aldarrikatzen duen bezala, hurrengo printzipioak ezarriko lirateke:

1. Ulertuta, 1. Artikuluaren arabera:

- a. *‘Zona’ gisa ulertzen dira itsas eta ozeano-hondoak eta horien lurpea jurisdikzio nazionalaren mugetatik kanpo;*
- b. *‘Agintaritza’ Itsas-Hondoen Nazioarteko Agintaritza da.*
- c. *‘Zonako jarduera’ bezala Zonako baliabideak esploratzeko eta ustiatzeko jarduera guztiak ulertuko dira.*

2. *“Ezein estatuk ezin izango du legitimoki bere subiranotasunaren menpe jarri itsaso zabalaren edozein zati.” (89. Artikulua)*

3. *“Zona eta bere baliabideak gizateriaren ondare komuna dira.” (136. Artikulua)*

4. *“Ezein estatuk ezin izango du subiranotasuna edo eskubide subiranorik aldarrikatu edo egikaritu Zonaren zati baten edo horren baliabideen gainean. Eta ezein estatuk edo pertsona fisiko edo juridikok ezin izango ditu Zonako alderdiren bat edo haren baliabideak aldarrikatu. Ez da aitortuko subiranotasunaren edo eskubide subiranoen aldarrikapen edo egikaritza hori, ezta halako jabetzarik ere.*

- a. *Zonako baliabideen gaineko eskubide guztiak gizateria osoarenak dira, eta Agintaritzak horren izenean jardungo du. Baliabide horiek besterenezinak dira. Hala ere, Zonatik ateratako mineralak bakarrik besterendu ahal izango dira Alderdi honen eta Agintaritzaren arau, erregelamendu eta prozeduren arabera.*

- b. *Ezein estatu edo pertsona natural edo juridikok ez dizkie eskubiderik aldarrikatuko, eskuratuko edo egikarituko Zonatik ateratako mineralei, Alderdiarekin bat etorrira ezean. Bestela, eskubideak aldarrikatu, eskuratu edo egikaritzea ez da aitortuko.*”

5. 155. Artikuluaren arabera “*espolarazio eta ustiapen sistemak gizateriari mesede egin behar dio*”. Beraz ulertzen da interes nazional partikularretara ezin dela lotuta egon.

(NBen Asanblada Orokorra, 1982)

UNCLOS ez gain, Txinak Svalbard Ituna ere aipatzen du, 1920an sinatua; zeinek Estatu sinatzaileei (izan zein izan ez “Artikoko Estatu”) 1. artikuluan zehazten diren lurralde eta uretara sarbide askea, ikerketa zientifikorako eskubidea eta ekintza produktibo-komertzialak egiteko eskubidea ematen dien (The Svalbard Treaty, 1920). Horrela, Txinaren diskurtso nagusia nazioarteko konbentzioen arabera “Artikoa gizateria osoaren ondare dela” aldarrikatzea da (e.g. Rainwater, 2013 & Lim, 2018 & Xinmin, 2019), eta itsaso honetan ikusi diren eskubideak dituela. Lehen bi argudioak Yin Zhuo almirante txinatarrak 2010ean botatako esaldi batekin laburbildu daitezke: “*Artikoa munduko jende guztiarena da, beraz nazio batek ere ez du honen gain subiranotza osorik... Txinak rol garrantzitsu bat jokatu behar du bertan, munduaren bosten bat baikara*” (Pike, 2020).

Hirugarren argudio nagusia aurrera eramandako ekintzak eta kolaborazioa dira. Orain aipatu bezala, Txina XX. mendearen hasieratik egon da Artikoko aferetan murgilduta Svalbard Itunaren eskutik. 1996an Artikoko Nazioarteko Komite Zientifikoan sartu zen eta orduandik bere jarduerak asko hazi dira. 1999an *Xue Long* ontzi izotz-hauslean ikerketak aurrera eramaten hasi ziren, eta 2004an Spitsbergen artxipelagoan Artikoko Ibai Horia Estazioa eraiki zuen. Hauekin, 2017ra arte 8 espedizio zientifiko egin ditu Txinak Ozeano Artikoan (Txinako Estatu Kontseilua, 2018), eta 2021etan 17 urte daramatza ikerkuntza aktiboan. 2005ean Arctic Science Summit Week ospatu zen lehen herrialde asiarra izan zen Txina, eta testuan zehar esan den moduan 2013an Artikoko Kontseiluan begirale gisa sartu zen (Txinako Estatu Kontseilua, 2018). Gainera, Ingimundarsonen (2014) zehazten duen arabera Txinak Artikoa egiten dituen ekarpenak, batez ere ekonomikoak, Artikoko Estatu gehienek gainditzen ditu; batez ere Belt and Road Initiative (BRI) proiektuak Artikoa duen adarra sustatuz “Zetaren Bide Polarra” hain zuzen ere.

### 3. 2. Txinaren Artikoko Interesak

Txinak Artikoan dituen interes nagusiak argi daude honek Liburu Zuria atera aurretik. 2012an, Cheng-ek lan honen hasieran azpimarratu ditugun hirurak nabarmendu zituen oinarritzotzat; izan ere, Artikoa Txinari merkataritzarako itsasbide laburrago eta seguruago bat, errekurso naturalak eskuratzeko gaitasuna eta aldaketa klimatikoan ikerketa sakonago bat aurrera eramateko aukera ematen dizkio. Hala ere, Liburu Zuriak bost politika nabarmentzen ditu: ingurunearekin eta aldaketa klimatikoarekin lotutako bi, aukera ekonomikoekin lotutako bat, eta kooperazioa, bakea eta gobernantzarekin lotutako beste bi. Ikerketa hau ordea, aurretik ikusi den moduan, aspektu geopolitiko eta geostrategikoetara bideratuko den heinean, Txinaren politika hauen puntu batzuetan bakarrik zentratuko da, adibidez Txinak Artikoan sustatu nahi duen turismoa (Txinako Estatu Kontseilua, 2018: 8) alde batera utziz. Horrez gain, Liburu Zuriko bost politiketan Txinaren interesak eta hauek lortzeko estrategia batera agertzen dira. Baina, hobeto uler dadin lanean banaketa hori egingo da, lehenik interesak eta bigarrenik estrategia edo jarrera landuz. Laburbilduz, merkatal itsabideei, errekurso naturalei eta ikerketa zientifikoari buruz arituko dira hurrengo lerroak.

Itsasbideekin hastekotan, hasieran nabarmendu den bezala, NSRetik, Shanghai-Rotterdam bidea %30 inguru laburrago da eta ia 400.000\$ aurrezten dira bidaiako, Suezeko Kanaleko Itsasbidearekin konparatuz (Wan, Ge eta Chen, 2018). Europaz gain NSRetik Amerika iparraldeko kostaldeetarako bidaia ere %40an murrizten da Panamako Kanaleko Itsasbidekoarekin alderatuz (Lim, 2018). Argitu behar da Artikoan Txinak erabili ditzakeen beste bi itsasbide komertzial existitzen direla, **2. irudian** ikus daitekeen bezala. Baina Stephenson et al.ek 2013an aurrera eramandako ikerketa batean, adituek zehaztu zuten NSRa dela, eta mende honen lehen zatian behintzat izango dela, eraginkorrena eta nabigagarriena. Izan ere, izotza dela eta Itsasbide Transpolarra (TSR) praktikan ez da nabigagarria izango ezein itsasontzirentzat mende honen bukaerara arte eta Ipar-mendebaldeko Pasabidea (NWP), mende erdialdera arte gutxienez, itsasontzi sendoenek bakarrik nabigatu ahal izango dute (Stephenson et al., 2013).

Txinak bere ekonomia esportazioetan oinarritu izan du, eta nahiz eta gobernuak norabide aldaketa bat planteatu duen aurrerago ikusiko den “zirkulazio dualera”, adituen arabera hurrengo urteetan esportazioek ez dute duten nagusitasuna galduko (Liu, Margaritis eta Zhang, 2019). Horregatik bere produktuak garraiatzeko bide merke eta laburrago bat izatea oso interesgarria zaie. NSRaren bidez Txinak ez luke bakarrik erregaia eta denbora

aurreztuko, horrez gain, CO2 emisio gutxiago sortuko lituzke lehenbizi; bigarren, Malakako Itsasarteko eta Suezeko Kanaleko pirateria eta trafikoa sahiestuko lituzke (Rainwater, 2013), adibidez Evergreen itsasontziak 2021eko martxoan eragindako pilaketak eta atzerapenak (Román, 2021); hirugarren, AEBrekin izandako gerra komertziala kontuan hartuta, NSRak amerikarrek kontrolatzen ez duten itsasbide komertziala izatearen segurtasuna emango lioke (Lim, 2018); eta laugarren, itsasbide alternatibo honek Txinako ipar-ekialdeko kostaldea ekonomikoki garatzeko aukera ekarriko luke (Gavrilov eta Kripakova, 2017). Aukera hau aprobetxatu nahirik, Txina azken hamarkadan jada hasi zen itsasbidai komertzialak egiten NSRetik. Estatuko *China Ocean Shipping Company* (COSCO), 2018an adibidez, zortzi bidaia egin zituen Artikoan zehar, eta gehienak izotzetik nabigatzeko gai diren hiru itsasontzi berriekin egin zituen: *Tian Hui*, *Tian You* eta *Tian En* (Eiterjord, 2019).

Bigarrenik errekurtsu naturalen afera dago. Rainwater-en (2013) arabera, Txinaren hazkunde ekonomikoa energetikoki sustengatzea buruhauste bihurtu da Txinako Alderdi Komunistarentzat, izan ere herrialdea munduko energia kontsumitzailearik handiena da termino absolutuetan (Lim, 2018), baina bere lurretan errekurtsu naturalak nahiko eskasak dira. Hala, erraldoi asiarraren ekonomia atzerriko errekurtsuen menpe dago, gehien bat petroleoaren menpe. Hori dela eta, lider Txinatarren artean inolako errekurtsu gabeziak hazkundera etengo duenaren beldurra dago, eta horregatik 2003tik petroleoa Txinako seguritate nazionalaren osagaien zerrendaren barruan dago (Rainwater, 2013: 3). Gainera Txinak 2030erako bere karbono aztarna murriztu nahi du, ikatzetik gas naturalera bira egin nahi duelarik (Lim, 2018). Hala, Artikoak paper oso garrantzitsua joka dezake duen potentzial energetikoagatik, **1. irudian** ikus daitekeena, batez ere Txinarentzat gako diren petroleo eta gas naturalean. Honek, Txinari bere erregai hornidura dibertsifikatzea erraztuko lioke (Gavrilov eta Kripakova, 2017), horrela beste edozein zonaldeko gabeziek gutxiago eragingo lukete ekonomia nazionala. Izan ere, Txinara doazen erregaiak zonalde konfliktiboetatik datoz edo hauek igaro behar dituzte; hots, Ekialde Hurbila, Malakako Itsasartea, eta piratez beteriko urak (Rainwater, 2013). Badirudi beraz, Artikoa munduko lehen ekonomia izateko hazkundera Txinarentzat bitarteko erabakigarria izan daitekeela, eta honekin bat datoz herrialdearen azken mugimenduak. 2017an iragarri zenetik, Zetaren Bide Polarrak aurrerapen esanguratsuak lortu du materia honetan, esaterako Siberiako Yamal gas natural likidotua garraiatzeko proiektu baten garapenean (Lanteigne, 2021).

Hirugarren eta azkenik ikerketa teknologikoa eta aldaketa klimatikoa daude. Esan bezala Artikoan aldaketa klimatikoak eta berotze globalak eragindako fenomenoek Txinan eragin

zuzena dute (Chen, Chen eta Wei, 2013), adibidez elurte bortitzak honi atxikitu ahal dira edota izotzaren urtzeak haizeztatze egoera kaskarra dakar Txina kontinentalera, kontaminazioaren eraginak indartuz (Lim, 2018). Liburu Zurian adierazten denez, klima-aldaketaren arazoari heltzea da Txinak eskualdean duen helburuetako bat (Txinako Estatu Kontseilua, 2018) eta horretarako ikerketa anitz aurrera eramán ditu. Baina, ikerketa hauek ez dira aldaketa klimatikoari heltzeko bakarrik. Izan ere, bigarren puntuari aipatu diren errekurtso naturalekin ere badauka zerikusia, **1. Irudiko** erregaien ehuneko altu bat oraindik aurkitzeke baitago, eta baita lehenengo puntuarekin. Ikerketak, nahiz eta XX. mendearen hasieran Svalbard Ituna sinatzearekin batera Artikoan ikertzeko sarbidea izan, 90. hamarkadan hasi zirela esan daiteke, eta batez ere 1999an *Xuelong* izotz-hausle erraldoiaren eskutik. Hasieran aipatu bezala 2004an Ibai Horia estazioa jarri zuen artxipielañoan eta orduandi hainbat eta hainbat ikerketa misio aurrera eramán dituzte, 2010ean lehenbiziko aldiz Iparralde geografikora helduz (Rainwater, 2013). Azken urteotan, izotz-hausle flota bat eraikitzeaz gain, THE Artikoko aukera ekonomiko berriak aprobetxatzeko funtsezko hainbat teknologia eskuratzen ari da. Txina Artikoan komertzialki nabigatzeko gai diren ontzi eta petrolio-ontzi indartuak eraikitzen ari da, eta ur sakonetan zultzeko teknologiak erosiak ditu (Rainwater, 2013: 8).

### 3. 3. Txinaren Jarrera

Interes hauek lortzeko Txinak jarraituko duen estrategia ikertzea ezinbestekoa da, aktore hain garrantzitsuaren sarrerak (nahiz eta jada Artikoko aferetan murgilduta dagoen) eskualdeko egonkortasuna mantenduko, hobetu edo ahulduko duen ulertzeko. Izan ere, nazioarteko sisteman hain idartsua den potentzia baten sarrerak, ikuspegi errealista batetik ulertuta desorekak eragin beharko lituzke, baina THEk kooperazioan eta irabazi-irabazi emaitzan oinarritutako estrategiak sustatzen dituela aldarrikatzen du. Liburu Zurian adierazten denez, lau funtzesko printzipiok gidatzen dute Txinaren Artikoko partehartzea: errespetua, kooperazioa, irabazi-irabazi emaitza eta iraunkortasuna (Txinako Estatu Kontseilua, 2018). Lehenengo biak “errespetua” eta “kooperazioa” Txinak zonaldean bultzatu nahi dituen elkarrenganako balioak dira; hots, parte guztiek hauek betetzea nahi dute (Lim, 2018). Batetik, errespetuaz ari denean, legearen errespetuaz ari da, Txinak, aurretik aipatu bezala UNCLOS eta nazioarteko zuzenbidearen defentsa egiten baitu, bere interesen alde daude eta. Nazioarteko legaltasuna errespetatzen bada, aurretik aipatu ditugun eskubideak izango lituzke, pasabide libre izango litzateke txinatar ontzientzat. Bestetik, kooperazioa bultzatzen du bere kanpo politika orokorrarekin bat eginez. 2004an Hu Jintaok “Garapen Baketsua”

terminoa azaleratu zuen Txina potentzia ez errebisionista eta arduratsu belazala aurkezteko (Rainwater, 2013), eta orduandik bere subiranotzatik kanpo ez du interbentzio zuzenik edo indarrezkorik egin, nahiz eta egia den eragiteko botere ekonomikoaz baliatu dela. Hala, ondoriozta daiteke Txina Artikoan parte hartzaile aktiboa dela daukan kanpo politika ez beligeranteagatik, bertan, nazioarteko legeadia errespetatuz gero, potentzia asiarrak ez baitu arazorik izanen bere helburuak lortzeko. Bigarren printzipio pareta berriz, “irabazi-irabazi emaitza” eta “iraunkortasuna” Txinaren Artikoko partehartzearen bidez lortu nahi den emaitzari buruz ari da (Lim, 2018), partehartze honen bisio utopikoaren emaitzei buruz hain zuzen ere. Hortaz, printzipio hauei soilik so eginda badirudi Txinaren portaera kooperatibo eta bakezalea dela, ikuspegi liberalarekin bat eginez. Gainera, lehen aipatu bezala Artikoko Kontseiluaren begirale da 2013tik, Artikoren gobernantza bideratzen duen kontseilu aldeanitzekoa dena, honek gero eta gehiago praktika liberaletara (Nazioarteko Harremanen ikuspegitik) hurbiltzen duena. Baina, errealtateak txanponaren beste aurpegia ere erakusten du.

Izan ere, Txinak dituen kolaborazio eta itunak askotan aldebikoak dira. Peng eta Weggek (2015) adierazten duten bezala, 2012an, Kanadarekin Atzerriko Inbertsioa Sustatzeko eta Babesteko ituna sinatu zuten. Islandian, 2008ko krisitik ateratzeko dirua txertatu zuen Txinak eta lankidetzan gogotsuenak omen dira. Groenlandian erraldoi asiarrak erakutsitako interesa dela eta Danimarkarekin ere hainbat itun sinatu ditu. Eta, batez ere Errusia eta Putinekin dauka Txinak lotura sendoena, bi aktoreak hegemonia partekatu bat bilatzen ari dira erregioan, eta hain sakona da erlazioa zeinek kapitulu oso bat izango duen aurrerago lanean. Hala ere, beste hainbat Artikoko Estaturekin harreman nahiko hotzak ditu, adibidez, AEBrekin izandako tirabiren ondorioz jadanik Txinak ez du intereseko aktore bezala kontuan hartzen (Peng eta Wegge, 2015). Baina benetan nabarmentzeko jarrera, eta ikuspegi liberaletik benetan aldentzen dena, Norvegiarekin izandako jarrera diplomatikoa da. Txinak azken urteotan Norvegiar eman duen diskurtso diplomatikoak gogorarazten du Txinako buruzagi politikoek gogor jokatzeko duten gaitasuna eta borondatea, haien interes zentralak arriskuan daudela sumatzen dutenean (Peng eta Wegge, 2015). Bien arteko kooperazioa ia gelditu egin zen 2010ean Bakearen Nobel Saria Liu Xiaobo txinatar gartzelaratu bati eman ziotenean, nahiz eta orduan arte Artikoko herrialde eskandinabiarren artean komertziorako txinatarren gustukoena izan. Badirudi, adituen esanetan, Txinak ez duela jada lehen aipatutako “Garapen Baketsua” jarraitu nahi, profil baxuko diplomazia izatetik pixkanaka nazioartean dauden erregimen eta arauak aldatzea bilatu nahi duelarik (Lim, 2018). Xi

Jinpinen aroan, kanpo politikan fase berri bat dago abian, “Amets Txinatarra” den Txina arrakastatsu eta moderno bat helburu delarik. Politika berri hauen arabera, Beijingek ez ditu bere interes nazionalak sakrifikatuko bakea mantentzeko, jadanik “garapen baketsuak” ez du lehentasuna izango “Txinatar Ametsa” lortzeko unean, gatazka egoteko aukerarik badago ere (Sørensen, 2015). Gainera, Rainwater-ek (2013: 14) dioen bezala “*Artikoan txinatar militarizazioa Txinako Herri Errepublikan kontuan hartzen hasi diren aukera bat da*”, Txinaren jarrera berrian bere interes geopolitikoak nagusituko baitira beste edozeren gainetik, egun “*Txinak eskualde polarretan dituen "jarduerak, aktiboak eta beste interes batzuk" Txinako segurtasun nazionalari berezko zaizkio*” eta (Sun, 2020). Hala ere, nabarmendu behar da, indarraren erabileraren mehatxuaren mamua airean dagoen arren, THEko politikariek beti azaleratu dutela kooperazioarekiko lehentasuna (Lim, 2018), batez ere arlo ekonomikoan, eta horren erakusgarri Zetaren Bide Polarra da.

Txinaren atal honekin bukatzeko testuan zehar zenbaitetan aipatu den Zetaren Bide Polarrari buruz hitz egitea litzateke egokiena. Liburu Zuriaren arabera, Zetaren Bide Polarra Txinak nazioartean abian jarritako BRI kooperazio ekimenaren barruan sartuko litzateke “*Artikoan alderdien arteko konektibitatea eta garapen ekonomiko-sozial sustengagarria bultzatzeko*” (Txinako Estatu Kontseilua, 2018). BRIk dauzkan printzipio berdinek gidatzen dute bide polarra: kontsulta zabala, ekarpen berdina eta onura bateratuak. Eta gainera lankidetzazehatza bultzatzen du bost arlotan: politiken koordinazioa, azpiegituraren konektibitatea, oztoporik gabeko merkataritza, finantza-integrazioa eta herrien arteko lotura estuagoak. Zetaren Bide Polarra Artikoaren ezaugarrietara eta beharretara egokitzea ere azpimarratzen da, Artikoko Estatuekin garapen-estrategiak koordinatzea, Txina eta Europa Ozeano Artikoaren bidez lotuko dituen pasarte ekonomiko bat eraikitzekeo baterako ahaleginak sustatzea, Artikoaren konektibitate digitala hobetzea eta azpiegitura globaleko sare bat eraikitzearekin batera (Xinmin, 2019). Eta azken urteeotan hau garatzen hasiak dira, gehien bat Txinako inbertitzaileen eskutik, hauek Artikoko Korridorea, Norvegia eta Finlandiaren arteko trenbide sare berriak edota Helsinki eta Tallinen arteko urpeko tunela bezalako proiektuak ari dira bultzatzen; Txinaren Zetaren Bide Polarra Mendebaldeko eta Erdialdeko Europarekin lotuko luketeenak (Kopra, 2020). Artikoko itsasbideen garapena da Zetaren Bide Polar honen muina, eta bere momentuan nabarmendu dugun bezala NSRa da Txinak gogokoen duen bidea, ia bere osotasunean beste Artikoko eragile nagusiak kontrolatzen duena, Errusiak alegia.



## 4. ERRUSIA

Errusiak 37.000 kilometro inguruko kostaldea du, gehiengoa Ozeano Artikoan, eta Zirkulo Polar Artikoaren barruan lur-masa handiena duen herrialdea da, **3. Irudian** ikus daitekeen bezala. Honek, ondoren landuko den SESBren garaian izandako garrantziari batuta, historikoki Artikoko aktore eta eragile nagusi bihurtu du (Cacas, 1981). 90. hamarkadan, jada Errusiar Federazioa (EF) zelarik, eskualdea alde batera utzi zuen arren, XXI. mende hasieratik, eta batez ere 2010. hamarkadatik aurrera berriro ere izan zuen inportantzia berreskuratu du, gaur egun Errusiari potentzia bezala berpizteko aukera eman diezaikoeen eszenatoki bihurtzen ari da eta, bai errekurtsio naturalek eta bai NSRek daukan potentzialagatik. 2001eko ekainaren 14an EFk Artikolari buruzko lehen dokumentua argiratu zuen “Errusiar Federazioaren Artikoko Politiken Funttsak” izenpean, gai militarrei buruzkoa bereziki. 2008an, Dmitry Medvedev presidenteak gai gehiagotara zabaldu zuen 2008-2020 Urteetako Bide-orria deitu zitzaion dokumentuarekin. 2013an, Putin jada presidente zelarik, Artikoko Eskualdearen Garapenerako Estrategia onartu zuen, Medvedeven testua oinarri zuela, baina helburu errealistagoak bilatzeko xedearekin. Era honetan, Txinaren Liburu Zuriarekin aurreko puntuan egin den bezala, dokumentu hauen analisisia egin liteke; baina, Errusiaren dokumentu berriena 2013koa izanda, eta azken zortzi urteotan aldaketa handiak eman direla kontuan hartuz, datorren kapituluan ez dira zuzenean dokumentu ofizial hauek ikertuko. Horren beharrean, dokumentuek planteatzen zituzten helburu nagusiak mahigaineratuko dira, eta ikerketa bera artikuluko akademiko eguneratuagoetan oinarrituko da. Baina, horretan hasi aurretik Errusiak Artikoarekin izan duen historian laburki murgiltzeak gaur egungo egoera ulertzen lagunduko digu.

### 4. 1. Errusia Artikoan Eragile

Ezin daiteke zehaztasunez jakin noiz hasi zuen gizakiak Artikoaren esplorazioa, baina itsaso siberiarrak, Kara Itsasoa esaterako, jada XVI. mendeko mapa batzuetan irudikatzen zirenez, *Pomorak* (errusiar herrietako bat) mende batzuk lehenago bertan zeudela esaten da (McCannon, 2013). Hala ere, ez zen Artikoa interes nazionaleko bilakatu, XV. mendetik aurrera, Errusiar Inperioa finkatu zen arte. Ivan IV.aren garaian, eta batez ere Basilio III.aren Ozeano Pazifikorako bidea itsaso hotzetatik egiteko ideia zegoen boyardoen artean, udan Arkangels eta Taz ibaiaren estuarioa batzen zituen Mangazeiako itsasbidea

aprobetxatuz (Officer eta Page, 2012). Baina, garaiko teknologia eskasa zenez, eta gainera Errusia Pedro I.a (Handia) boterera iritsi arte ez zenez itsas-potentzia handia, ideia alde batera utzi zen XVIII. mendera arte. Pedro Handiaren garaian aurrerapenak egin ziren Artikoko nabigazioa, haatik, benetako merkataritzak, XX. mendeko aurrerapen teknologikoak iritsi arte itxaron behar izan zuen (McCannon, 2013). Horrela, egun ezagutzen dugun errusiar Artikoko nabigazioa eta esplorazioa Urriko Iraultzaren ostean hasi zen. Guda Zibilean ere boltxebikeentzat paper garrantzitsua jokatu zuen arren, gotorleku isolatu bezala erabili baitzuten, komunistak boterera heldu zirenean hasi zen Artikoaren benetako esplotazioa. 1932an Otto Yulievitxek Arkangelsketik Beringera itsasoz heltzea lortu zuen (Officer eta Page, 2012), 1935ean NSRa zabaltzea ahalbidetuz, honekin Siberiako eskualdea garatzeko tresnak emanaz SESBari. Bigarren Mundu Gerran ere nolabaiteko abantaila eman zion Armada Gorriari, hala ere, Gerra Hotza izan zen eskualdean inflexio puntu. Garai honetan, SESBek froga nuklearrak aurrera eraman zituen Artikoan, arma estrategikoen hedapen puntua izan zen (bonbardatzaileak, radarrak...) eta batez ere puntu oso estrategikoa izan zen bi blokeen tentsioaren kontuan, inolako eraso zuzenik gertatuko bazen Artikoa zelako bide laburrena (McCannon, 2013). SESB erori ondoren, 90. hamarkadan, Errusiak Artikoa alde batera utzi zuen, base militarrik eta espedizio zientifikoak bertan bera utziz (Alonso, 2018). NSRagatik zegoen interes eskasari errekurtsio naturalen esplotazioarako teknologia falta batu zitzaion, eta murgilduta zegoen krisi ekonomikoak gobernu herrialdearen hegoaldean idarrak zentratzera bultzatu zuen. Hala, herrialde asko, jada iraganean zegoen kontrol militarrik gabe, Errusiaren Artikoko mugak gainditzen hasi ziren eta 90. hamarkadaren amaiera aldera Errusiak kontrol osoa galduko zuela zirudien (Golotyuk, 2008). Baina, Putin EFren presidente hautatu zutenean Artikoa lehentasun nazionalerako eskualde izendatu zuen, hala Moskutik berriro ere honen garapen ekonomiko eta militarri garrantzi handia ematen hasi zitzaion (Dostri, 2017), aipatu bezala honen garapenerako dokumentuek argitara uzten dutenaren arabera.

Artikoko erakundeei dagokienez, arestian esan den moduan, EF Artikoko Kontseiluaren parte da, baina baita “Artikoko Bostak” taldearen kide. Artikoko kontseilua, batetik, organismo finko eta ordenatua da, Nordek (2016: 34) “cuasi-nazioarteko erakunde” bezala definitzen duena, deklarazio ez lotesle batek erregulatzen duen heinean ezin baitaiteke nazioarteko erakunde osotzat hartu, ez dauka eta izaera juridiko independentea. Hala, dakigunez, hainbat aktore biltzen dituen foroa (Kuersten, 2016) da Artikoko Kontseilua, zortzi aktore nagusirekin (Kanada, Danimarka, Finlandia, Suedia, Islandia, Norvegia, Errusia eta AEB,

zeinek kontsentsuz hartzen dituzte erabakiak), baina hainbat begirale (Txina, adb.) eta partaiderekin. Gainera Kuerstene (2016) arabera, ikerketa tailer bezala funtzionatzen du, sei lan-taldek Artikoko ingurugiroari eta garapenari buruz ikertzen duten heinean. Nabarmentzekoa da, azkenik, Artikoko Kointseiluaren Eraketaren Deklarazioaren (1996) arabera, hau “*Artikoko garapen jasangarriari eta ingurumen-babesari buruzko gaietara mugatzen da*”, eta “*ez luke segurtasun militarrekin lotutako gaiez arduratu behar*”. Artikoko Bostak, bestetik, Artikoko itsasertzeko bost Estaturen elkarte da (Kanada, Danimarka, Norvegia, Errusia eta AEB). Asoziazio hau ez da erakunde formal bat; hots, *ad hoc* izaera dauka. Hala, nahiz eta hartuemanak aldebiko edo aldeanitzeko eran egin, kanal diplomatiko tradizionalatik, eztabaida edo negoziazioa behar duen inolako arazorik sortuz gero Estatu hauek goi-bilera burutzen dute. Orain artean hiru aldiz batu dira: 2008an Groenlandia, 2010ean Kanadan eta 2015ean Norvegian. Esan bezala, nahiz eta *ad hoc* izaera izan, Estatu hauen aldetik egiten den bilera eta akzio kontzertatu oro kontuan hartzekoa da eskualdean eragin handia izan dezakelako (Kuersten, 2016). Hala, EFk eskualdean kooperaziorako mekanismoak erabiltzen dituela ikus daiteke, Artikoko Kontseiluaren kasuan instituzionalismo neoliberalaren postulatuak jarraitzen dituen heinean. Baina kontuan izan behar da baita Artikoko Bosten *ad hoc* izaera. Izan ere, azaldu den moduan, kooperazioa gatazkaren aurrean gailentzeko elkarrekikotasuna eta etorkizunean kooperazioa errepikatzeko itzaropena behar dira, eta izaera formalik ez duen erakunde batek ez du hau ziurtatzen.

#### 4. 2. Errusiaren Artikoko Interesak

Dokumentu ofizialekin bat etorritz, aipatutako 2008-2020 Urteetako Bide-orriarekin hain zuzen ere, Ovalle eta Salazarrek (2016) lau gai nagusitan sailkatzen dituzte Errusiak Artikoaerikiko dituen interesak. Hasieran esan bezala, lehen biak, eta lauretan garrantzitsuenak 1) garraioa eta 2) errekurtsio naturalen ustiaketa dira, hirugarren, Txinaren kasuan bezala, 3) ikerketa zientifikoa eta ingurugiroari buruzko gaiak daude, eta azkenik, Errusiak 4) segurtasunari lotutako interesak ere baditu eskualdean.

Lehendabizikoarekin hastekotan, jada testuan zehar aditzera eman den bezala, Errusiar Federazioaren interes nabarmenetako bat NSRaren garapena eta hedapena da. NSRa Errusiar jurisdikzioko uretatik igarotzen da (Jacob, 2018) eta honek hiru abantaila ezberdin ematen dizkio Federazioari. Lehenik, geroago jardungo ditugun errekurtsio naturalak mobilizatzeo funtsezkoa izango da. Bigarren, garapen ekonomikoa ekarriko luke, bai herrialdearen

iparraldera, eta baita transiberiarraren karga arinduko lukeen heinean, estatu osora. Bukatzeko, EF nazioarteko merkataritzaren aktore klabe bat bihurtuko luke NSRaren garapenak (Sánchez Andrés, 2010). Aurretik ikusi den bezala, NSRak hainbat abantaila ditu gaur egun erabiltzen diren beste itsasbideen aurrean, gehiegi ez errepikatzeko, esan daiteke Artikoaren urtzeak Asia, Europa (bi hauek batez ere) eta Amerikako iparraldea konektatzeko itsasbide laburrago, merkeago eta seguruago bat agerian jarriko duela, Malakako Itsasarteko eta Txina Hegoaldeko Itsasoko tentsioak arinduz. Honetaz aparte, NSRak hainbat ibai nabigagarriekin egiten du konexioa, orain arte erabili ezin zirenak. Honekin, kostaldeko herrien garapenaz gain ibai hauen bidean daudenak eta barnealdean errekurtsos aberatsak direnenak ere garatu litezke (Gómez de Ágreda, 2014). Urtzeak urteetan itsaso beroetara sarbidea lortzeko Kremlinak izan duen grina asetuko luke gainera. NSRaren garapenerako, Putinen gobernuak egin duen lehen gauzetako bat hamar base militar berri zabaltzea izan da, horrela EFk itsasbidearen gaineko kontrola ziurtatzeko (Alonso, 2018). Horrez gain, gobernuak azken urteetan hainbat aldiz azpimarratu du NSRetik nabigazio segurua bere eratzunkizuna dela, bai ontzi nazional zein kanpotarrentzat. Izan ere, 2021eko martxoan Putinek Ever Given ontzia Suezeko Kanalean hondartzea aprobeixatu zuen NSRaren aldeko propaganda egin eta hau nazioartean sustatzeko (Ortega, 2021). Baina, Txinaren atalean ikusi dugunez, oraindik arazo batzuk ditu NSRak perfektua izateko. Alonso-ren (2018) aburuz hauek puntu batzuetako kalatu mugak, izotz arteko nabigazioa, eta neurri txikiagoan gatazka geopolitiko posibleak izango lirateke. Alonsok (2018) azpiegitura eta portu falta ere aipatzen du, baina hau konpontzeko erraz dauka Errusiak. Izan ere, Sánchez Andrések (2010) zehazten duen bezala, EFk SESBaren herentziaz portu azpiegitura handia dauka eta munduko izotz-hausle eta izotz-hausle atomiko flota handiena, hauen zaharberritzea lortzea litzateke erronka bakarra kasu honetan. Eta jada hasi da hori egiten, 2020ko Urtarrilaren 15ean Dmitri Medvédevk 1.850 milioi euroko txekua sinatu zuen, *Lider* proiektua bultzatzeko: inoiz sortutako izotz-hausle handien fabrikazioa. Munduan dauden beste teknologia berdintsuko bost ontzien prestazio bikoitza izango du. Hiru *Lider* daude aurreikusita, lehenengoa 2027an entregatzeko, eta orduan arte Rosatomflot enpresa estatalak beste hiru ontzi atomikoz hornituko du Federazioa, *22220 proiektua* aurrera eramateko; hots, urte osoan ozeano Artikoko bankisa mardulenetan bidea zabaltzeko gaitasuna izatea, nazioarteko merkataritzari bidea zabaltzeko (Descamps eta Baccaro, 2020).

Bigarrenik, esan bezala, errekurtsu naturalen afera daukagu. 2014an, Luszczuk et al.ek hurrengoa idatzi zuten:

*“Duela hamarkada bat, Artikoan munduko gas naturalaren % 25 zegoen, eta petrolioaren % 10a. Hala ere, Artikoaren zatirik handiena ustiatu gabe dago. Aurkitu gabeko baliabide horiek 90 mila milioi petrolio upel, 50 bilioi metro kubiko gas natural eta 44 mila milioi upel likido natural (LGN) izan daitezke, Ameriketako Estatu Batuetako Geologia Zerbitzuaren (USGS) arabera. Hori gutxi gorabehera munduan aurkitu ez den eta teknikoki berreskura daitekeen petrolioaren % 13 da, baita munduko gas-erreserben % 30 ere, eta % 84 inguru itsas zabalean dago. Litekeena da aurkitu gabeko gas naturala Artikoan petrolio baino hiru aldiz ugariagoa izatea eta nagusiki Errusian kontzentratzea.”*

(Luszczuk et al., 2014: 74)

Hiru urte beranduago, Lars Lindholt eta Solveig Glomsrødek datu hauek eman zituzten:

*“Artikoak petrolio eta gas natural baliabide handiak ditu, aurkitu gabeko munduko baliabideen % 11 eta % 26, hurrenez hurren; hau da, merkataritzaren ikuspuntutik, erauzketa errentagarria espero da.”*

(Lindholt eta Glomsrød, 2017: 79)

*“Errusia Artikoa (EFren Artikoko Zonaldea) petrolio ekoizle erraldoia da Artikoan eta mundu osoan, Artikoko petrolio guztiaren %95arekin gaur egun(eta Errusiako petrolio guztiaren %90). Aurkitu gabeko gas erreserbei dagokienez Errusia Artikoak Artikoko baliabide guztien %70 ditu, zeinetatik %90 itsas zabalean daude.”*

(Lindholt eta Glomsrød, 2017: 80)

Honek aditzera ematen du EFk Artikoan duen errekurtsoen potentziala. Zonaldea mineral eta harri preziatuetan ere oso aberats izan arren, nikela, diamanteak edo nikelaren EFko produkzioaren gehiengoa suposatzen duen heinean (Krivovichev, 2019 eta Alonso, 2018), benetako aukera ekonomikoak Artikoaren itsaspeko lurrazpiko potentzial energetikoak ematen ditu (Gómez de Ágreda, 2014). Hala, Jacobek (2018) nabarmentzen duen bezala, 2008tik Errusiaren Artikoarekiko politiken helburuetako bat errekurtsuentzako base estrategiko bat jartzea izan da, hauek babesteko. Baina, errekurtsio hauen esplotazioaren arazoetako bat inbertsio handia behar duela da. 2014ra arte Gazprom edo Rosneft bezalako errusiar energia konpainiek inbertsio atzerritarrarekin kooperatu zuten, ustiaketa eta esploraziorako, baina 2014an Europar Batasunak eta AEBk EFri ezarri zizkion zigorren harira, kooperazio hau gelditu egin zen (Jacob, 2018). Hala, Moskuk berak egin behar izan du azken urteotan inbertsioa edo Europa eta AEBz at beste kanpoko beste inbertsioak bilatu, eta honek, lehen aipatu dugun Txinaren errekurtsio beharrari lotuta, geroago jardungo dugun bi potentzien arteko kolaborazioa sustatu du. Beste arazo posibleetako bat petrolio edo gasaren prezioa da, eta bi eratan zauritu ditzazke honek Errusiaren interesak. Batetik, petrolioaren prezio erlatiboki baxuak mantentzen badira, erauzketa ez litzateke errentagarria

izango, zailtasun teknikoengatik dituen kostuak kontuan hartuta (Shapovalova, Galimullin, eta Grushevenko, 2020), erauzketa hau petroleo upela 70\$etik gora dagoenean bakarrik baita errentagarria (Jacob, 2018). Bestetik, etorkizuneko prezio altuek gainerako herrialdeek beste energia iturriak erabiltzea ekarri dezakete, garbiagoak eta merkeagoak diren heinean. Hala, Gómez de Ágredak (2014) dioen bezala, “*epe ertainera, Artikoan erregai fosilak eskuratzeko aukera ematen duten ingurumen-zirkunstantzia berberak hau gomendagarria ez izatea edo horien ustiapena gaur egun lor lezakeen bolumenarekin alderatuta askoz errentagarriatasun gutxiagokoa den negozio bihurtzea eragin dezakete*”. Azken arazoa, Alonsok (2018) aipatzen du, izan ere, bere ustez errusiar ekonomiaren idiosinkrasiak “errekurtsoen maldizioa” garatzeko joera ematen dio Federazioari. Beraz, ikusi dugunez, errekurtso naturalen gaiak Errusiar kooperaziorako bidea ematen dio; baina, ekonomiarako duten garrantzi potentziala dela eta gatazka puntu ere bihur daiteke. Politika liberal edo errealistagoak hartuko ditu herrialdeak kanpotik datozen *inputak* aztertu ostean.

Jada bi gai garrantzizkoenak jorratuta, hirugarrena eta laugarrena garatuko ditugu ikerketa zientifikoa eta ingurugiroari helduz hasteko. EFaren Artikoko Zonaldea (EFAZ) Sergunin eta Konisheven (2018: 137) arabera “*oso kontaminatuta dago eta osasun arazo larriak sortzeko arriskua dago*”, izan ere, EFAZaren %15 dago kutsatuta. Artikoko Kontseiluak eta *Barents Euro-Arctic Council*ak 2010ean 42 puntu bero identifikatu zituzten, permafrosta kolapsatzeko puntu kritikoak, guztiak Errusian (Sergunin eta Konishev, 2018). Horrez gain, sobietar garaiko izotz-hausleen eta urpekontzien 200 bat desgaitutako erreaktore nuklear gordeta daude Kolako Penintsulan, hondakin nuklearren kudeaketa ere kritiko bihurtzen delarik. Hala, ingurugiroaren babesa lehentasun bezala dauka Kremlinak, eta ikerketa zientifikoa gai honetara bideratzen da gehien bat: aldaketa klimatikoari buruz ikertzeko laborategiak, laborategi bioteknologiko eta biokimikoak... EFAZen hainbat garbiketa programa ere aurrera eramán dira, ikerketatik at. Gobernuak 2011n 2,3 mila milioi rubloko programa bat esleitu zuen EFAZaren garbiketarako eta 2015ean 21 mila milioira igo zuten esleipena (Sergunin eta Konishev, 2018: 138). Eta hondakin nuklearren afera ere konpontzen ari dira pixkanaka. 2008a eta 2015aren artean segurtasun nuklear eta erradiologikorako programa bat bultzatu zuen, beste hainbat gauzen artean erretiratutako urpekontzi nuklearren %97aren erreaktoreak desegitea lortu zuten (Sergunin eta Konishev, 2018). 2016an berriz, hondakin erradioaktiboen garbiketarako beste programa bat martxan jarri zen. Beraz, gai honetan esan daiteke EFren geostrategia liberalismoaren aldetik doala. Izan ere, Errusiaren interes geopolitikoak NSRan zentratzen dira, eta beraz, honen urtzea bultzatzea interesatzen zaio, gainera, kutsatuta dagoen

zonaldea oso populazio baxukoa da; baina hala ere, kutsaketaren aurka lan garrantzitsua egiten ari da, interes orokorra interes nazionalaren gainetik jarriz, errealismoa. Horregatik Errusia aktore kooperatibo bezala ikus dezakegu, gatazkatsuen aurretik.

Laugarren eta azken afera, esan bezala segurtasunarena litzateke. Alonsoren (2018) hitzetan: *“Errusiak, urtzearekin, permafrostaren erasozintasunak ematen zion abantaila galdu izango du”*. Honek EFren partetik 2000. mendearen bukaera aldera hasitako Artikoaren militarizazioa bultzatu duela esan daiteke, baina badago beste faktorerik ere. Izan ere, Artikoko Bosten beste lau herrialdeak NATOren kide dira eta beraz Errusiak desabantaila estrategiko handia dauka (Jacob, 2018). Alabaina, Moskutik egin diren operazio militarrik hurrengo atalean ikusiko dira sakonago, baina aurreratze honekin mahaigaineratu nahi da Federazioak bere Artikoko Zonaldean segurtasunean inolako perturbaziorik somatzen badu erantzun militarra emateko prest egongo dela, eskualdeko tentsioa areagotuz. Baina ondorengo atalean azalduko denez, militarizazio hau baliteke ez izatea segurtasuna bermatzeko, baizik eta lehenengo eta bigarren interesak indarraren bidez ziurtatzeko.

#### 4. 3. Errusiaren Jarrera

Ikusi bezala, XXI. mendearen hasieraz geroztik Errusiak Artikoarekiko duen jarrera aldatu egin da, 90. hamarkadan zuen desinteresetik gaur egun lehentasun nazionaleko gai izatera pasatuz. Horretarako Moskuri Artikoan daukan kontrola areagotzea interesatzen zaio eta bi estrategia nagusi ditu horretarako: nazioarteko legea eta indarra. Hots, lanean kontrajarri diren eskolen bi printzipio nagusiak uztartzen ditu. Batetik, EFk, aipatu bezala, Artikoko Kontseiluaren bidez diplomazia kooperatiboan parte hartzen du, UNCLOSa erabiliz egiten ditu lurralde erreklamazioak eta Kode Polarraren bidez nabigazio segurtasuna eta ingurumenaren babesa sustatzen ditu. Sergunin eta Konishev-en (2018: 142) arabera Errusiak Artikoko nazioarteko ekimen guztiak babestu ditu. Bestetik, SESBrekin zuen superpotentzia estatusa berreskuratzea bilatzen du botere eta indar armatuaren metaketaren bitartez (Piqué, 2018).

Lehenbizi, estrategia legala ikertuko da. Izan ere, Artikoan tentsioak eragiten dituen arrazoietakoa bat hau, Antartika ez bezala, herrialdeen artean banatuta ez izatea da (Sánchez Andrés, 2010); hots, aurretik esan bezala, Txinak erreklamatzeko duen bezala “gizateria osoarena” baita. UNCLOSaren 81 eta 82. artikuluen arabera, kostaldeko Estatuak dira bere

lurraldetik 200 miliara arte itsasondo eta honen azpian dauden errekurtsio naturalak, eta 76. artikulua dioenez 350 miliarainoko luzapena eskatu dezakete, baldin eta frogatzen badute hedadura hori plataforma kontinentalaren parte dela. Hain zuzen ere hau da Errusia urteetan zehar frogatzen saiatu izan dena, gobernuaren aburuz Artikoko itsaspeko geruza, Lomonosov mendikatea hain zuzen ere, errusiar plataforma kontinentalaren jarraipena baita (Mas de Xaxás, 2019). 2001. urtean egin zuen lehen erreklamazioa, froga faltagaitik ukatua NBE-n eta 2007an bigarrena. Urte berean, Artur Chilingarov Dumako presidenteorde eta esploratzaileak Ipar Poloko itsaspean errusiar bandera jarri zuen, erreklamazio sinbolikoa eginez (Ventas, 2015). 2015ean dokumentu errebisatu gehiago bidali zituen Federazioak NBE-ra, bere frogak indartzeko asmoz, baina orain arte ez da erresoluziorik eman (Mas de Xaxás, 2019). UNCLOSetik at, 2013ko urtarrilaren 17an NSRetik nabigatzeko protokoloa onartu zuen Errusiako Garraio Ministeritzak. Honen arabera errusiar uretatik pasatu nahi duen edozein ontzi atzeritarrek 120 egun lehenago abisatu beharko luke Ministeritza, eta honek baimena uka liezaioke. Baimena emanaz gero, ontziari herrialdearen uretan gehienez zenbat egun eman behar dituen aditzera emango zaio, izotz-hausle bat esleitzeaz gain (Williams, 2017). Honek, beste herrialdeentzat UNCLOS-en “pasabide inuzentearen” printzipioa hausten du (Williams, 2017), baina Errusiako Gobernuaren arabera Kode Polarrak bere uretan itsasoko kutsadura zaindu, murriztu eta kontrolatzeko eskubide bereziak ematen dizkio (Marginedas, 2019). 2017an, Garraio Ministeritzak zuen kompetentzia hau Rosatom korporazio nuklear estatalera pasatu zen, honi NSRaren azpiegitura eta nabigazioaren kontrol osoa esleitzuz, Artikoko polikan aktore nagusi izatera pasa da horrela Rosatom (Digges, 2017).

Bigarrenik, Errusiak eskualdean duen militarizazioaren gorakada azaltzea ezinbestekoa da. 2000. hamarkadaren bukaeratik sobietar aroko base militarrik abandonatuak eta berriak zabaltzeko ahaleginetan aritu da Defentsa Ministeritza. 2014tik 500 edifikazio baino gehiago altxatu dira eta sobietar garaiko beste hainbat berriztu eta modernizatu. Horrela, EFko gobernuak duela hamarkada bat zeukan diskurtsoaren kontra egin duela ikus daiteke. Orduan Moskutik Artikoaren militarizazioa gaitzesten zen (Sánchez Andrés, 2010), baina azken urteotan, begi bistakoa da Errusiak abiada handian Artikoa militarizatu duela (Saxena, 2020). Hala ere, base hauek orokorrean zientifiko-militarrak dira, eta gehien bat defentsarako pentsatuak. Baina ezin da alde batera utzi hauek daukaten ahalmen erasotzailea, 2021eko apirilean satelite bidezko irudiek inoizko hedapen militar handiena erakusten zuten eta funtzionario errusiar batzuen esanetan Federazioa “Poseidon Torpedoa”, itsaspeko torpedo nuklearra garatzen ari direla diote (Paton Walsh, 2021). Guzti honek, Barents eta Norvegiako



itsasoetan maiz ematen diren NATOren eta EFren ontzien topaketekin batera (Saxena, 2020), eskualdeko tentsioan eskalada bat ekarri dezake eta gatazka izatearen arriskua dakar horrek. Dena dela, printzipioz errusiar posizio armatuak gaur egungo *status quo*a mantentzeko daude, herrialdeak NSRerekiko eta EFAZko errekurso naturalekiko daukan subiranotasuna eta boterea mantentzea bermatzeko hain zuzen ere. Hala, Alonsoren (2018) aburuz ezin daiteke espero NATO eta EFren arteko inongo konfrontazio armaturik etorkizun hurbilean.

Laburbilduz, aurrekoak aditzera ematen du Errusiak daukan estrategia bereziki pragmatikoa. Izan ere, ikusi dugunez nazioarteko ekintza eta legeen babesle da herrialdea, eta 2014ra arte kanpo inbertsioa eta kooperazioa bultzatzen zituen. Alde horretatik, pentsa genezake EFren estrategia kooperazio eta legearen errespetuan oinarrituko dela. Baina, testuan zehar argitu da hau errealitatearen aurpegi bat baino ez dela, Mosku eskualdean bilatzen ari den botere metaketak errealismo gordina azaltzen baitu. Gainera, nazioarteko legediaren erabilpena interpretazio propioz egiten du (adibidez aipatutako Kode Polarraren kontua) eta zalantzazko legitimitatea duten ekintzen bidez presioa egiten du nazioarteko erakundeetan (esaterako aipatutako errusiar bandera urpena kokatzea, errekursoen gaineko eskubide gehiago onartzeko). Hala ere, azpimarratu behar da Errusia estrategia gatazkatsua erabiltzen hasi dela batez ere 2014ko zigorren harira. Baliteke, indar erakustaldia AEB eta Europar Batasunaren aurrean posizio irmo bat aurkezteko egin izana, zeren eta, azken hamarkada honetan beste hainbat herrialderekin loturak hobetu ditu, eta bazkide komertzial berriak bilatu. Artikoan (eta bestela ere) Errusiak daukan bazkide garrantzitsuena eta potentzial handiena duena Txina da, badirudielako hauen interesak osagarriak direla.

## **5. KOOPERAZIO SINO-ERRUSIARRA ARTIKOAN**

Ikusi dugun bezala, Errusia eta Txina eragile garrantzitsuenetarikoak dira Artikoaren etorkizuna proiektatzeko orduan. Era berean, Artikoko gaietan duten partaidetza eta kooperazioa, formalki zein informalki, eskualdeko epe luzeko oreka estrategikoa ulertzeko ezinbesteko osagai bihurtu da. Alabaina, adituen artean bi ikuspuntu daude harreman sino-errusiarren inguruan, batzuk benetako aliantza estrategikoa dela diote, besteek berriz komenentzia-ardatz bat baino ez dela sostengatzen dute (Guo eta Lloyd Wilson, 2020, Alonso, 2018). Lehenengoaren defendatzaileek bi estatuen arteko akordioak eta NBen Segurtasun Kontseiluan dituzten bozka komunak mahaigaineratzen dituzte, Putin eta Xi Jinpinggek daukaten harreman pertsonalaz gain. Bigarrena diotenek ordea, hainbat kasutan elkarrekiko interesak izanda ere adostasunetara heldu ez izana nabarmentzen dute eta baita oraindik bien artean dagoen deskonfiantza ere (Guo eta Lloyd Wilson, 2020). Dena dela, aliantza estrategikoa edota komenentzia ardatza, argi dago EF eta THEren arteko kooperazioa areagotu egin dela azken urteotan, arlo gehienetan, baina Artikoan bereziki.

### **5.1. Aurrekariak**

Esan bezala, azken urteotan Txina eta Errusiaren harremana estutu egin da, batez ere 2014an Europar Batasunak eta AEBk bigarrenari ezarri zizkion zigorren harira. 2013tik bi presidentek 30 aldiz baino gehiago batu dira, non 20.000 milloi dolar inguruko balioko akordioak sinatu dituzten, bien arteko lotura ekonomikoak hobetzeko (Neuman, 2019). Izan ere, bi herrialdeak mugakide dira, Txina Errusiaren mugakide indartsuena izanik, eta alderantziz; eta beraz harreman ona izatea komeni zaie. Historian zehar izan ez duten zerbait, 1949tik eta batez ere haustura sino-errusiarren harira, bien artean konfiantza eza eta lehia nabarmendu baitira (Sorensen eta Klimenko, 2017: 24).

Lotura horiek sendotzeko hainbat ekimen gauzatu dituzte Xi eta Putinen mandatupean eta horien artean nabarmentzekoa da Erdialdeko Asiako kooperazioa adibidez. 2016an, APECen Limako gailurrean, Txinako presidentek BRI proiektua eta Errusiaren Eurasiako Batasun Ekonomikoa (EEU ingeleraz) integratzea proposatu zuen (Sorensen eta Klimenko, 2017: 24). EEU 2011an funtzionatzen hasi zen erakunde erregionala da, aduana-batasun gisa eta 2015etik batasun ekonomikoa bilatzen du. Helburu nagusia estatu kideei eskualde-mailako lotura ekonomikoen potentziala gauzatzeko laguntzea da, ekonomia nazionalak modernizatzen eta merkatu globaletan sartzeko beharrezko baldintzak sortzen. Ondasun, zerbitzu, kapital eta lan-merkatuan merkatu bakarria ezarri nahi da Eurasiako integrazioa bilatuz (Vinokurov,

2018). Hala, integrazio honek sare ekonomiko eurasiar bat eratuko luke Shanghaiko Elkarlan Erakundearen barnean. Gainera, Txinak ez du inoiz Errusiak eskualde horretan duen rola zalantzan jarri, segurtasun eta gobernantza erregionala alde batera utziz eta Xinjiang probintziarako mehatxu posibleak bakarrik artatuz (Stronski eta Ng, 2018). Ildo honetatik, Errusiak Artikoan Txinarekin kooperatzeko aurrekari bezala jar daiteke Asia Erdialdeko kasua. Xi Jinpingen gobernuak hemen daukan jarrera Errusiak Txinak Artikoan izatea nahi duena da, kooperazio ekonomikoa baina gobernantzan eta *status quo*an sartu gabe (Goodman eta Sun, 2020). Baina badirudi erraldoi asiarrak beste estrategia bat duela iparraldean (Guo eta Lloyd Wilson, 2020).

Kooperaziorako beste puntu bat bi herrialdeen arteko errekurtsio naturalen salerosketa izan da. Gas eta bereziki petrolio kooperazioa 90. hamarkadaren bukaeran eta XXI. mendearen lehen hamarkadan hasi zen, poliki-poliki. Petrolioaren gaiak 2009an hartu zuen abiada, Igor Sechinek Rosnef petrolio enpresa estatalaren buruak enpresaren jarrera herrialdean finkatu zuenean. Hala, 2013an Rosnef eta Sinopec estatu enpresek akordio izugarria sinatu zuten: 25.000 milioi dolarreko mailegua, 300 milioi tona petroliorekin ordainduko zirenak, 10 urteko denbora tartean. Horrela, Txinari petrolio hornikuntza zihurtatzen at, Errusiarekin etorkizunean gai honetan kolaboratzeko ateak ireki zitzaizkion, adibidez Siberia ekialdeko errekurtsioen garapenerako ekintza bateratua hasiz (Sorensen eta Klimenko, 2017: 25). Aitzitik, 2014tik aurrera kooperazio hau berriz ere moteldu da, Errusiak txinatar konpainiak inbertitzera gonbidatu dituzten arren negoziaketek kale egin dute eta beste herrialde asiarrak begiratu behar izan du herrialde sobietar ohiak, adibidez Indiar (Sorensen eta Klimenko, 2017). Gasaren kontuan ordea, Gazprom eta *China National Petroleum Corporation* (CNPC) 30 urterako kontratua sinatu zuten 2014an, zigorrak zirela eta gasaren kooperazio prozesua bizkortuz, baina oraindik ez da aurrerapen garrantzitsurik egin. Gaur egun, txinatar konpainiek ez dute Errusiak proposatutako edozein akordio onartzen, badakitelako negoziazio posizio indartsua dutela 2014ko zigor eta betoak direla eta, beti ere ahaztu gabe oraindik ere kooperaziorako prest daudela. Baina, hemen ikus dezakegu nola, nahiz eta Txinak irabazi-irabazi emaitzak bultzatzen dituen, boterea duenean atera litekeen zuku guztia atera arte presionatzen duela eta hori aurrekari kaltegarri bat izan liteke Artikoaren kasurako.

Baliteke, aditu batzuek dioten bezala komenentzia-ardatz bat baino ez izatea, baina aditu gehienek azpimarratzen dute EF eta THEren arteko kooperazioa eta koordinazioaren indartzea (Pincus, 2020, Trenin, 2020, Beixi, 2016). Bien arteko aldebiko harreman

ekonomikoak, lotura militarrek eta energia errekurtsoen artekoak areagotu egin dira azken urteotan eta ezin dugu hau alde batera utzi, nahiz eta aliantza estrategiko bat ez izan. Pincusen (2020: 40) hitzetan, Artikoaren kasuan *“interes gainjarriak -baina ez ondo lerrokatuak-”* dituzte Txinak eta Errusiak. Beixik (2016), gure hipotesiekin bat etorritz, bi herrialdeek interes osagarriak dituztela azpimarratzen du, geopolitikoak, baina geo-ekonomikoak bereziki. Hala, bi arlotan bereiz ditzakegu estatuek kooperazioa bultzatzeko dituzten interesak: arlo ekonomikoa eta segurtasunaren arloa edo militarra.

## **5.2. Kooperazio ekonomikoa eta militarra Artikoan**

Txinaren geoestrategia globalarekin bat etorritz, Beijingek Artikoan dituen interes nagusiak ekonomikoak dira, errekurtsu naturalak eta itsasbideak hain zuzen ere. Horrela, kooperazio sino-errusiarra bi ardatz horien inguruan zentratzen da (Pincus, 2020). Batetik, arestian azaldu bezala, energia eta errekurtsu naturalak aurki daitezke Errusiaren Artikoko uretan Txinak, bere hazkundera eta zirkulazio dualaren estrategia nazionala sustengatzeko beharrezkoak dituenak, bere lurretan hauek nahiko eskasak diren heinean. Hala, txinatar konpainiak EFAZan inbertitzen hasi dira, erauzketarako garapen teknologikoan laguntza behar baitu Errusiak errekurtsuen esplotazioa gauzatzeko (Beixi, 2016). Alexeeva eta Lasserrek (2018) dioten bezala, *“Errusiako baliabide energetikoen eta mineralen eskuragarritasuna, Txinako eta Beijingeko merkatu kontsumitzaileak bere energia-hornidura ziurtatu eta dibertsifikatu beharra, eta lehorreko muga luzea dira bi herrialdeak elkar osatzera eta elkarlan onuragarria eraikitzen bultzatzen dituzten baldintzak.”*. Hainbat dira 2014tik aurrera Txina eta Errusiak batera aurrera eramandako akordioak, baina Sorensen eta Klimenkok (2017) Yamal LNGn (gas natural likidotuaren ingelerazko siglak) 2013tik, baina 2016an batez ere eginiko kooperazio nabarmentzen dute, zeina Txina Exim Bankuak eta Txina Garapenaren Bankuak finantzatu zuten. Pincus-ek (2020: 48) Moskuren kanpo politika eta barne politikarako eragin handiak izan zituela azpimarratzen du, bai ekonomiko zein politikoak, eta Txinari Artikoko errekurtsuen garapenerako duen ahalmena erakusteko eszenatoki bat jarri ziola. Proiektua arrakasta handia izan da eta datuen arabera 70%ean igoarazi du errusiar LNGaren produkzioa; gaur egun produkzio nazioanalaren %90a Yamalen egiten delarik. Hala eta guztiz ere, nahiz eta maila altuko bileretan akordio asko sinatu eta Artikoko proiektuetan elkarrekin lan egiteko konpromiso ofiziala dagoen, Txinak eta Errusiak Artikoan duten lankidetzaren oso dinamikoa da, erregulartasunez tratatu berriak sortuz eta zaharrak bertan behera utzi, aldatu edo etenez (Alexeeva eta Lasserre, 2018).

Beste aldetik, itsasbideen gaia daukagu. Lanean zehar argitu denez, Errusiari NSRa gaur egungo itsasbideen alternatiba bezala (batez ere SCRren alternatiba) sustatzea interesatzen zaio, arestian aipatutako hiru abantailengatik (errekurtsoen mobilizazioa, garapen ekonomikoa eta nazioarteko estatusa). Txinaren aldetik, itsasbideen dibertsifikazioa suposatzen du NSRaren garapenak, eta bide seguruago bat emango lioke Malakako Itsasarteako arazoak sahiestuz adibidez. Gainera, Txina munduko hirugarren ontzi-jaberik handiena da, eta 2012an Errusiak NSRetik pasatzeko ontzi kanpotarrek izotz-hausle errusiarraren konpainia izatea behartzen zuen erregulazioa kendu zuenez interesa areagotu zaio. BRI ekimenaren barruan ere sar daiteke NSRa, BRIk daukan Zetaren Bide Polarraren gakoia baita. 2018an eman zuen aditzera BRIren proiektu polarra Beijingek, baina Sunek (2018) nabarmentzen duen bezala, ideia 2015ean Errusiak Txinari NSRa garatzeko egin zion gonbidapenean datza. Beraz, esan daiteke EFk Txinako Alderdi Komunistan eragiteko gaitasuna duela eta kooperazio proiektuak ondo ikusiak direla bi herrialdeetan. Pincusen (2020: 46) arabera: *“BRI eta EFAZ lotzeak aldaketa nabarmen bat dakar Artikoko Sino-errusiar kooperazioa indartzea beharrezko dela ulertu dutelako”*.

Esan bezala, kooperazio ekonomikoa da garrantzitsua oraindik Errusia eta Txinaren artean. Baina, ezin dira baztertu arlo militarrean batera egiten ari diren aurrerapausuak. Esaterako, Putinek, 2019an *“gure lagun Txinatarrei”* misilen aurkako abisu arineko sistema garatzen laguntzen ari zirela esan zuen (Kravchenko, 2019). Txinak oraindik ez dauka presentzia militarrik Artikoan, baina badirudi poloetan aritzeko gaitasunaren bila dabilela, izotz-hausle eta urpekontzi polarrak barne (Pincus, 2020: 53). Hortaz gain, ariketa militar bateratuak egiten aritu izan dira, baita Artiko inguruko eskualdeetan (Unhjawala, 2020). Weitzek (2015) Txina eta Errusiaren arteko kooperazio militarra honela deskribatzen du:

*“Ez etsai ez aliatu ez diren bi herrialderen arteko segurtasun-partaidetza orekatua (nahiz eta mugatua), zenbait segurtasun arazo dituzte komunean, hala nola gatazka militar zuzenak saihestea, Asia erdialdea bezalako mugetan eta inguruetan segurtasuna kudeatzea, eurasiar egonkortasuna mantentzea eta Estatu Batuak eta bere aliatuak orekatzea. Batek ere ez du bestea mehatxu militar gisa ikusten.”*

(Weitz, 2015: 2)

Hala, Artikoa Weitzek aipatzen duen oreka puntu hori litzateke bi herrialdeentzat, eta gainera, bere interes nazionalak segurtatu beharreko eskualdea. Txinaren kasuan ikusi dugunez,

honek, iraganean ez bezala, bere interes nazionalak arriskuan ikusten baditu indarra erabiltzeko prest egongo da.

### **5.3. Erronkak**

Elkarrekintza sino-errusiarrak, hau etorkizunera arrakastatsua izan dadin, mahaigaineratzen dituen erronketatik lau dira garrantzizkoenak. 1) Lehenik eta behin, proiektu ekonomikoekiko txinatarren jarrera daukagu. Esan den moduan, Errusiari ezarritako zigorren harira Txinako inbertsoreek negoziatzeko posizio hobea dutela badakite. Horregatik, proiektu hauetan arazoizko prezioan baino ez dute parte hartzen, eta bazkide gisa gogorak izan dira. Ikusi dugun bezala, tratu asko bertan behera utzi edo geldiarazi dituzte, errusiarrek eta txinatarrek tratuen balioa ez zutelako berdin ulertzen. Gainera, txinatarrek ez dute proiektu garestietan eta arrisksuetan inbertitu nahi, baldin eta zuzendaritzan paper bat ziurta ez badezakete eta ahotsa eta boto eskubideak ez badituzte. Txinako gobernuak bere enpresek Artikoan ingeniariatza, diseinu eta zulaketa jardueretan benetako inplikazioa izatea nahi du, hots, hasieratik bukaerara arte bazkide izatea. Bestalde errusiar konpainiei ez zaie interesatzen hainbat urtetan garatu duten esperientzia Txinatar enprekin partekatzea (Alexeeva eta Lasserre, 2018). Hala, kooperazioa bide onetik eramateko bi herrialdeen arteko deskonfiantzak konpontzea litzateke beharrezko. 2) Bigarren erronka Artikoaren gobernantzarekin dago lotuta. Ikusi dugunez, Errusiak beti babestu izan du bere Artikoko posizio berezia eta Txinak Artikoaren garapenaren gobernantzan rol garrantzitsuagoa izatea bilatzen du, bere presentzia legitimatuko lukeena. Honek bi herrialdeen artean hainbat tira-bira ekarri ditu, adibidez, horren harira Errusiak AEBren Artikoko Estatu vs. Estatu ez-Artiko zatiketa binarioa onartu du, Txinaren “Artiko ondoko estatu” terminoa baztertuz (Goodman eta Sun, 2020). Hala, errezeloz ikusten du Errusiak Txina Artikoaren gobernantzan sartzea eta ez du nahi honek Artikoko agenda formulatzea (Trenin, 2020). Mosku Artikoko Bosten pribilegio bereziak mantentzen saiatzen ari da, eta ikusi dugunez NSRaren administrazioan legearen interpretazio espantsionista egiten du bere intereserako. Txinak ez du hau onartu nahi eta hainbat aldiz salatu du Mosku UNCLOSak baimentzen duen pasabide inuzentearen” printzipioa hausteagatik (Goodman eta Sun, 2020). 3) Hirugarren erronka Errusiaren egituretan datza. Txinatarrek zenbait aldiz aditzera eman baitituzte EFn negozioak egiteko zailtasunak, batez ere administrazioaren moteltasuna eta burokrazioaren konplexutasuna, baina baita Artikoan dagoen azpiegitura desagokia (Stronski eta Ng, 2018). 4) Azkenik, erronka militarra daukagu. Izan ere, aipatu bezala Errusia eta Txinaren aliantza militar batek NATOk eskualdean daukan posizioa mehatxatu lezake eta tentsioak igoarazi.

Hala, nahiz eta Txinak ez duen nahi eskualdean inolako biolentzia ez tentsiorik, NSR seguru bat nahi batu, ezin daiteke alde batera utzi honek ekar lezakeen sistemaren ezegonkortzea.

Guztia honela, oraingoz, kooperazio sino-errusiarra Artikoan komenentzia praktikoa eta elkar-onuragarria dela azpimarratu daiteke (Guo eta Lloyd Wilson, 2020). Hala ere, hainbat arazo dituzte oraindik konpontzeke, batik bat desadostasun teknikoak (Goodman eta Sun, 2020). Baina Txinak pazientzia handiz jokatu du Errusiarekin negoziatzerakoan eta urteak aurrera doazen heinean bien arteko kooperazioa eta konfiantza hedatzen eta sakontzen doa, Artikoan estrategikoki lerrokatzen ari direlarik (Goodman eta Sun, 2020). Honek, eskualdera beste botere foko bat ekarriko du, eta nazioarteko sisteman indar handiago emango die. Momentuz Txina eta Errusia erakundeen eta bilateralismoaren kartak erabiltzen ari dira, bai liberalismoaren zein errealismoaren estrategiak uztartuz, baina badirudi aldebiko negoziazioak nahiago dituztela eta bien arteko kooperazioa sustatuko dela hurrengo urteetan zehar, nazioarteko sistemaren desegonkortasuna zalantzan jarri dezakeena.

## 6. ONDORIOAK

Lanean zehar ikusi dugunez, Artikoa puntu geopolitiko oso garrantzitsu ari da bilakatzen, batez ere analisisan jorratutako bi herrialdeentzat. Errusiak bere aldetik, SESBen garaian nazioartean izan zuen estatusa berreskuratzeko bidean, aukera handiak ikusten ditu Artikoa esplorazioan, bereziki errekurtsu naturalek ematen dioten boterearekin. Horrez gain, NSRaren monopolioak ere indarrezko posizioa ematen dio datozen hamarkadetan munduko merkataritzarako oso interesgarri izan daitekeen itsasbidea baita hau. Honen bidez, EFK herrialdearen garapena bultzatzea eta nazioartean zentralitatea berreskuratu. Txinak berriz, zentralitatea berreskuratzeko tresna bat baizik, hau indartu eta mantentzeko erreminta bezala dauka Artikoa. Arestian aipatu bezala, hainbat interes ditu Txinak eskualdean, baina badirudi errekurtsu energetikoak direla kritikoenak. Izan ere, duen garapena mantentzeko, bere lurretan eskas diren erregaiak behar ditu eta Artikoa hauen hornidura dibertsifikatzea erraztuko lioke beste zonaldeetako gabeziek gutxiago eragingo luketelarik (Gavrilov eta Kripakova, 2017). Horretaz aparte NSRak ere gaur egungo itsasbideei alternatiba merke eta azkarragoa ematen dio, gainera, AEBren kontrolpetik kanpo ere badago. Txina bezalako herrialde esportatzaile batentzat onura handiak ekar ditzake honek, batez ere Europar Batasunaren bazkide komertzial nagusia bihurtu den heinean (Eurostat, 2020), bidaiak erraztuko baitizkio.

Hala, argi daude estatu bien interesak. Hauek lortzeko ordea, estrategia desberdinak erabiltzen ari dira. Printzipioz bai Txina zein Errusia Artikoko gobernantza organismo nagusian daude integratuta, Artikoko Kontseiluan hain zuzen ere. Errekurtsu naturalen aferak Mosku kooperazioaren bidean jartzen du, hauek garatzeko atzerriko inbertsioa behar baitu. Horrez gain ikusi dugu, nola hain intereseko ez dituen gaietan ere nazioarteko komunitatearen onurarako diren ekimenak eramaten dituela aurrera; hots, EFAZ garbiketa eta hondakin nuklearren kudeaketa, nahiz eta argudiatu daitekeen NSRa eta hustiaketa seguruagoak bultzatzeko egiten duela. Kremlinetik diplomazia kooperatiboa ere bultzatzen dela esan daiteke, erreklamazioak nazioarteko tratatuen bidez egiten dituen heinean, nahiz eta Artikoko Bostak bezalako *ad-hoc* erakundeetan parte hartzeak hau apur bat lausotzen duen. Txinak bere aldetik, gobernuko organismoetatik kooperazioan oinarritutako estrategiak sustatzen dituela aldarrikatzen du, bere kanpo politikarekin bat etorritik (Rainwater, 2013). Ikusi dugun bezala, Artikoa ere kooperazioarekiko lehentasuna (Lim, 2018), batez ere arlo ekonomikoan, erakusten du. 2000. hamarkadaren bigarren zatitik aurrera Artikoko Kontseilua bezalako erakundeetan sartzeko egindako ahalegina ere nabarmendu beharra dago, bide



instituzionala hartu beharrean eragina aldebiko harremanetatik irabaztea soilik aukera zezakeen eta. Gainera, aldebiko harreman horiek aukeratu ditueneko kooperazioa hainbat herrialdeekin garatu du, Liburu Zuriak aldarrikatzen duen “irabazi-irabazi” eszenatokiak bultzatuz. Azkenik, Zetaren Bide Polarraren adibidea ere hor dago, BRI proiektu handiaren barruan honen ezaugarriak partekatzen dituelarik, XXI. mendean kooperazio ekonomikorako anbizio handienetakoa duen proiektua.

Baina, Herrero de Castrok (2010: 29) antzematen duen bezala nazioarteko sisteman, orokorrean *“Estatuek berekoikeriaz jokatzeari utzi diote. Kooperazioaren alde egiten dute, baina izaera interesatuarekin. Eta eskualde-integratioko prozesuak nabarmen aurreratu badira ere, aldebakartasunaren eta nazioarteko anarkiaren kaltetan, ikusten dugu estatuek ez dutela nahi oinarrizko gaietan duten subiranotasunaren zati bati ere uko egitea”*. Gure kasuak ere joera honi erantzuten dio, eta ezin da jakin momentuz ikusten ari garen jarrera ez gatazkatsu hori mantenduko duten bi potentziek. Izan ere, ikusi bezala Beijingek argi dauka ez dituela bere interes nazionalak sakrifikatuko bakea mantentzeko, duela urte batzuk “garapen baketsuaren” premiarekin egiten zuen bezala, eta beraz Txina orain lehen baino aktore askoz arriskutsuagoa da zonaldean bakea mantentzerako orduan. Errusiaren kasua apur bat desberdina da, hedapen militarra buru baitu zonaldean. Aipatu denez hau bere interesak defendatzeko egiten du Moskuk eta printzipioz ez da mehatxu bezala kontuan hartu behar bere lurraldearen mugen barruan egiten baitu. Hala ere, tropen areagotzea ez da batere positiboa, tentsioak igoarazten dituen heinean. Gainera, nahiz eta UNCLOSa errespetatzen duela aldarrikatu edozein itsasontzi atzerritarri nabigatzeko baimena eskatzen dio. Hala, baimenik gabeko ontzi batek Errusiako ur Artikoak gurutzatzeak “pasabide inuzentea” aldarrikatuz, eskualdeko egonkortasuna apurtzeko arriskua ekarriko luke. Jarrera honetan 2014ko zigorrek ez dute inolako mesederik egin, herrialdeak Europa eta AEBrekin zuen interdependentzia ahuldu dutelako, eta eskualdeko indar militar garrantzitsuenarekin, hots, NATOrekin zuen erlazioa okertu dutelako.

Bi herrialdeen arteko lankidetzak ere izan ditzake ondorio latzak. Batetik, aipatu diren ezberdintasunak areagotzen eta larritzen badira eta Txinak eskualdean jarrera oldarkorrago bat hartzen badu. Esan beharra dago baita, bai Txina zein Errusia, potentziak diren heinean, aldebiko negoziazioetan irabaztera eta nahi dutena lortzera ohituta daudela, eta horrek, bien arteko negoziaketak zaildu edo apurtu ditzakeela. Hala ere, horretan Xi eta Putin presidentetek duten harreman onak kooperazioaren mesedetan jokatzeko duen, ez baitute XX. mendean, haustura sino-sobietarretik aurrera izan zuten areriotasunera bueltatu nahi. Bestetik,

lankidetzan honen arrakasta gehiegizkoak ere botere orekaren ikuspuntutik arazo handia suposa lezake. Ikusi dugunez bien arteko kolaborazio militarra gero eta garrantzitsuago bihurtu da azken urteotan, eta horrek eskualdeko beste aliantza militarrekin, NATOrekin, gatazka sor lezake. Izan ere, botere-orekaren eta botere grinaren ikuspuntutik, gorakadan dauden potentziek *status quo*a zalantzan jartzeko gaitasuna dutela hautematen badute, gatazka izateko aukera areagotu egiten da. Dena den, argitu denez, Errusiari ez zaio interesatzen Artikoko gaur egungo ordena haustea posizio pribilegiatua baitu bertan eta horrek gatazka probabilitatea gutxitzen du. EFk gatazka pribilegio hori arriskuan ikusiz gero baino ez luke hasiko. Horrela, bi herrialdeen arteko aliantza estrategiko bat ematen bada, Errusiak eskualdean dituen pribilegioei Txinatarren potentzial eta gaitasun ekonomikoa batuko zaio, Artikoa botere hegemoniko berria ezartzeko aukera zabaltzen zaielarik. Kasu horretan, hegemonia partekatu horren erruz eskualdean eragina galduko luketen beste aktoreen erreakzio biolento batean legoke gatazka aukera.

Honenbestez, hasierako hipotesiak baieztatzen dira. Ikusi bezala NSR eta errekurtsio naturalen aferak dira bi potentziak Artikoa mugiarazten dituztenak, eta printzipioz bai Txina zein Errusia aktore kooperatiboak dira. Baina, analisisan agerikoa denez bi estrategiak, kooperazioa eta botere metaketa, erabiltzeko prest daude EF eta THE, bere interesak gauzatzeko onena dena aukeratuz, nahiz eta momentuz gatazkara iritsi ez diren. Hortaz, esan daiteke bi estatuak aktore pragmatikoak direla eta Artikoa etorkizuna eskualdearen egoeraren eboluziora lotuta dagoela, momentuz kooperazioa gailentzen ari delarik. Hala ere, etorkizunean harreman hauek duten bilakaerari buruzko ikerketak beharrezkoak izango dira, nazioarteko sistemaren gune gako bihurtuko baita Artikoa.

**BIBLIOGRAFIA**

Abad, Gracia (2019). El liberalismo en la teoría de relaciones internacionales: su presencia en la Escuela Española. *Comillas Journal of International Relations*, (16), 56-64.

Abdallah, Layla I. (2016). Neoclassical Realism. *Oxford Bibliographies*. Eskuragarri hemen: <https://www.oxfordbibliographies.com/view/document/obo-9780199756223/obo-9780199756223-0187.xml> [Kontsulta eguna: 2021/03/29]

Alexeeva, Olga eta Lasserre, Frederic (2018). An analysis on Sino-Russian cooperation in the Arctic in the BRI era. *Advances in Polar Sciences*, 29(4)

Alonso, Ana (2018). El Ártico ruso: Análisis geopolítico de las oportunidades y amenazas del deshielo polar. *Análisis GESI*, (5), 1. Eskuragarri hemen: <http://www.seguridadinternacional.es/?q=es/content/el-%C3%A1rtico-ruso-an%C3%A1lisis-geopol%C3%ADtico-de-las-oportunidades-y-amenazas-del-deshielo-polar>

Alonso, Miguel (2010). Estrategia, Geoestrategia y Geopolítica. *Documento de Análisis del IIEE* 08/2010. Eskuragarri hemen: [http://www.ieee.es/Galerias/fichero/docs\\_analisis/2010/DIEEEA08-2010EstrategiaGeoestrategiaGeopolitica.pdf](http://www.ieee.es/Galerias/fichero/docs_analisis/2010/DIEEEA08-2010EstrategiaGeoestrategiaGeopolitica.pdf)

Amatulli, Giuseppe (2017). The role of China in the Arctic: challenges and opportunities for a sustainable development of the region. *Jindal Global Law Review*, 8(1), 103-110. Eskuragarri hemen: <https://link.springer.com/article/10.1007/s41020-017-0042-2> [Kontsulta eguna 2021/01/27]

Artikoko Kontseilua (1996). *Artikoko Kointseiluaren Eraketaren Deklarazioa*. Ottawa. Eskuragarri hemen: [https://oaarchive.arctic-council.org/bitstream/handle/11374/85/EDOCS-1752-v2-ACMMCA00\\_Ottawa\\_1996\\_Founding\\_Declaration.PDF?sequence=5&isAllowed=y](https://oaarchive.arctic-council.org/bitstream/handle/11374/85/EDOCS-1752-v2-ACMMCA00_Ottawa_1996_Founding_Declaration.PDF?sequence=5&isAllowed=y)

Atenció, Jorge (1975). *¿Qué es la geopolítica?* Buenos Aires: Pleamar.

Axelrod, Robert (1997). *The complexity of cooperation: Agent-based models of competition and collaboration* (Vol. 3). Princeton university press.

Beixi, Deng (2016). Arctic Geopolitics. *Russia in Global Affairs*, 14(2). Eskuragarri hemen: <https://elibrary.ru/item.asp?id=27344915>

Cacas, Joel (1981). La importancia geopolítica del mundo ártico. *Boletín de Información*, (147), 3.



Gómez de Ágreda, Ángel (2014). El cambio climático en el ártico: Más allá del Círculo Polar. *Revista del Instituto Español de Estudios Estratégicos*, (3), 4. Eskuragarri hemen: <https://revista.ieee.es/article/view/317>

Goodman, Sherry eta Sun, Yun (2020ko Abuziak 13). "What You May Not Know About Sino-Russian Cooperation in the Arctic and Why it Matters". *The Diplomat*. Eskuragarri hemen: <https://thediplomat.com/2020/08/what-you-may-not-know-about-sino-russian-cooperation-in-the-arctic-and-why-it-matters/> [Kontsulta eguna: 2021/05/07]

Guo, Ling eta Lloyd Wilson, Steven (2020ko Martxoak 29). "China, Russia, and Arctic Geopolitics" *The Diplomat*. Eskuragarri hemen: <https://thediplomat.com/2020/03/china-russia-and-arctic-geopolitics/> [Kontsulta eguna: 2021/05/07]

Ingimundarson, Valur (2014). Managing a contested region: the Arctic Council and the politics of Arctic governance. *The Polar Journal*, 4(1), 183-198.

González, Luis (2018). Organización del espacio global en la geopolítica "clásica": una mirada desde la geopolítica crítica. *Revista de Relaciones Internacionales, Estrategia y Seguridad*, 13(1), 221-238. Eskuragarri hemen: <https://www.redalyc.org/jatsRepo/927/92754537010/html/index.html>

Grasa, Rafael (2015). "Neoliberalismo e Institucionalismo. La reconstrucción del liberalismo como teoría sistémica internacional", del Arenal, Celestino eta Sanahuja, José Antonio (ed.) *Teoría de las Relaciones Internacionales*. Madril: Tecnos. (97-125)

Jacob, Léo-Paul (2018). Keys to Understanding Russia's Arctic Policy. *NATO Association of Canada* eskuragarri hemen: <https://natoassociation.ca/keys-to-understanding-russias-arctic-policy/> [Kontsulta eguna: 2021/02/26]

Jiemian, Yang (2014). From Geo-Strategy to Omni-Strategy: Interactions between China, Europe, and the United States. *German Marshall Fund of the United States*. Eskuragarri hemen: [https://www.jstor.org/stable/resrep18723?seq=1#metadata\\_info\\_tab\\_contents](https://www.jstor.org/stable/resrep18723?seq=1#metadata_info_tab_contents)

Jordán, Javier (2013). Enfoques teóricos de los estudios estratégicos. *Manual de estudios estratégicos y seguridad internacional*, 15-43.

Kopra, Sanna (2020). "Introduction China's Arctic Policy In Brief", Kopra, Sanna (ed.) *Defining The Chinese Threat In The Arctic*. The Arctic Institute (1-4).

Krivovichev, Sergei (2019). Editorial for special issue" arctic mineral resources: Science and technology". *Minerals*, 9(3), 192

Kuersten, Andreas (2016). The Arctic Five versus the Arctic Council. *Arctic Yearbook 2016*, 389, 395. Eskuragarri hemen: [https://arcticyearbook.com/images/yearbook/2016/Briefing\\_Notes/9.Kuersten.pdf](https://arcticyearbook.com/images/yearbook/2016/Briefing_Notes/9.Kuersten.pdf)

Lanteigne, Marc (2021). The Polar Policies in China's New Five-Year Plan. *The Diplomat*, eskuragarri hemen: <https://thediplomat.com/2021/03/the-polar-policies-in-chinas-new-five-year-plan/> [Kontsulta eguna: 2020/04/08]

Lim, Kong Soon (2018). China's Arctic Policy and the Polar Silk Road Vision. *Arctic Yearbook*, 2018, 420-432. Eskuragarri hemen: [https://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract\\_id=3603710](https://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract_id=3603710) [Kontsulta eguna: 2021/02/10]

Lindholt, Lars eta Glomsrød, Solveig (2017). Arctic petroleum extraction under climate policies. *The economy of the north 2015*, 79-84. Eskuragarri hemen: [https://www.researchgate.net/profile/Davin-Holen/publication/317050519\\_Interdependency\\_of\\_subsistence\\_and\\_market\\_economies\\_in\\_the\\_Arctic/links/5f208df0299bf1720d6bb102/Interdependency-of-subsistence-and-market-economies-in-the-Arctic.pdf](https://www.researchgate.net/profile/Davin-Holen/publication/317050519_Interdependency_of_subsistence_and_market_economies_in_the_Arctic/links/5f208df0299bf1720d6bb102/Interdependency-of-subsistence-and-market-economies-in-the-Arctic.pdf)

Liu, Ming-Hua, Margaritis, Dimitris eta Zhang, Yang (2019). The global financial crisis and the export-led economic growth in China. *The Chinese Economy*, 52(3), 232-248.

Keohane, Robert (2011). Neoliberal institutionalism. *Security studies: A reader*, 157-64.

Keohane, Robert eta Nye, Joseph (2017). Power and interdependence. *Conflict After the Cold War: Arguments on Causes of War and Peace*, 167.

Knecht, Sebastian (2013). Arctic regionalism in theory and practice: From cooperation to integration?. *Arctic Yearbook*, 2013, 4. Eskuragarri hemen: [https://www.researchgate.net/publication/257655950\\_Arctic\\_Regionalism\\_in\\_Theory\\_and\\_Practice\\_From\\_Cooperation\\_to\\_Integration](https://www.researchgate.net/publication/257655950_Arctic_Regionalism_in_Theory_and_Practice_From_Cooperation_to_Integration)

Kraska, James (2010). "Northern exposures". *The American Interest* eskuragarri hemen: <https://www.the-american-interest.com/2010/05/01/northern-exposures/> [Kontsulta eguna: 2021/02/26]

Kravachenko, Stepan (2019ko Urriak 3). "Putin Says Russia Is Helping China Build Missile Warning System" [On-line] *Bloomberg* eskuragarri hemen: <https://www.bloomberg.com/news/articles/2019-10-03/putin-says-russia-is-helping-china-build-missile-warning-system> [Kontsulta eguna: 2021/05/07]

Kristof, Ladis K. (1960). The Origins and Evolution of Geopolitics. *Journal of Conflict Resolution*, 4, 15-51.

Luszczuk, Michal et al. (2014). Developing oil and gas resources in Arctic Waters. In *Strategic assessment of development of the Arctic: Assessment conducted for the European Union* (pp. 71-85). Arctic Centre, University of Lapland. Eskuragarri hemen: [http://library.arcticportal.org/1792/1/SADA\\_report.pdf#page=107](http://library.arcticportal.org/1792/1/SADA_report.pdf#page=107)

Marginedas, Marc (2019ko Abuztuaren 3). “La Ruta Marítima del Norte, nuevo motivo de fricción entre Rusia y Occidente” *El Periódico* [On-line] eskuragarri hemen: <https://www.elperiodico.com/es/internacional/20190803/la-ruta-maritima-del-norte-un-nuevo-motivo-de-friccion-entre-rusia-y-occidente-7576236> [Kontsulta eguna: 2021/04/27]

Mas de Xaxás, Javier (2019ko Apirilaren 29). “El Ártico se calienta” *La Vanguardia* [On-line] Eskuragarri hemen: <https://www.lavanguardia.com/natural/cambio-climatico/20190429/461917404070/arico-cambio-climatico-memorial-batalla.html> [Kontsulta eguna: 2021/04/25]

McCannon, John (2013). *A history of the Arctic: nature, exploration and exploitation*. Reaktion Books.

Miheeva, N. (2019, Uztaila). Chinese-Russian cooperation in the Arctic: geopolitics and economics. In *IOP Conference Series: Earth and Environmental Science* (Vol. 302, No. 1, p. 012057). IOP Publishing. Eskuragarri hemen: [https://www.researchgate.net/publication/335002970\\_Chinese-Russian\\_cooperation\\_in\\_the\\_Arctic\\_geopolitics\\_and\\_economics](https://www.researchgate.net/publication/335002970_Chinese-Russian_cooperation_in_the_Arctic_geopolitics_and_economics) [Kontsulta eguna 2021/01/28]

Moure, Leire (2015). “El realismo en la teoría de las Relaciones Internacionales: Génesis, evolución y aportaciones actuales”, del Arenal, Celestino eta Sanahuja, José Antonio (ed.) *Teoría de las Relaciones Internacionales*. Madril: Tecnos. (61-96)

Myers, Steven Lee (2013, Maiatzak 15). “Arctic Council Adds 6 Nations as Observer States, Including China”. *NY Times* [On-Line], eskuragarri hemen: <https://www.nytimes.com/2013/05/16/world/europe/arctic-council-adds-six-members-including-china.html> [Kontsulta eguna 2021/01/28]

NBen Asanblada Orokorra (1982). Convention on the Law of the Sea (UNCLOS) eskuragarri hemen: <https://www.refworld.org/docid/3dd8fd1b4.html> [Kontsulta eguna: 2021/04/07]

Neuman, Scott (2019ko Ekainak 6). “As Relations With U.S. Sour, Xi Describes Putin As 'Best Friend' At Moscow Meeting” [On-Line] *NPR*. Eskuragarri hemen: <https://www.npr.org/2019/06/06/730200317/as-relations-with-u-s-sour-xi-describes-putin-as-best-friend-at-moscow-meeting?t=1620292846649> [Kontsulta eguna: 2021/05/06]

Nord, Douglas (2016). *The changing Arctic: Consensus building and governance in the Arctic council*. Oxford: Routledge.

Officer, Charles eta Page, Jake (2012). *A fabulous kingdom: the exploration of the Arctic*. Oxford University Press.

Ollave, María Jesus eta Salazar, Miguel Ángel (2016). Análisis geoestratégico de Rusia en los mares descongelados del norte, ¿ nuevo escenario de conflictos o de cooperación en el siglo XXI?. *Revista Estudios Hemisféricos y Polares*, 7(4), 13-39. Eskuragarri hemen: <https://www.revistaestudioshemisfericosypolares.cl/ojs/index.php/rehp/article/view/59>

Ortega, Ignacio (2021eko Martxoak 23). “Putin aprovecha el bloqueo del Canal de Suez para recordar al mundo la Ruta Ártica” *La Razón* [On-line] eskuragarri hemen: <https://www.larazon.es/internacional/20210327/a4pudxulhzgrpbtaj3232c4ieq.html> [Kontsulta eguna: 2021/04/15]

Parker, Geoffrey (1985). *Western geopolitical thought in the twenty century*. New York: St. Martin's Press

Paton Walsh, Nick (2021eko Apirilak 5). “Imágenes de satélite muestran una acumulación sin precedentes de poder militar ruso en el Ártico” *CNN Español* [On-line]. Eskuragarri hemen: <https://cnnespanol.cnn.com/2021/04/05/rusia-artico-poder-militar-submarinos-misiles-trax/> [Kontsulta eguna: 2021/04/28]

Peng, Jingchao eta Wegge, Njord (2015). China's bilateral diplomacy in the Arctic. *Polar Geography*, 38(3), 233-249.

Pérez de Armiño, Karlos (2015). “Estudios de Seguridad: de la visión tradicional a los enfoques críticos”, del Arenal, Celestino eta Sanahuja, José Antonio (ed.) *Teoría de las Relaciones Internacionales*. Madril: Tecnos. (301-328)

Pike, Francis (2020ko abenduaren 12a) “Cold war: Russia’s bid to control the Arctic”. *The Spectator* eskuragarri hemen: <https://www.spectator.co.uk/article/cold-war-russias-bid-to-control-the-arctic> [Kontsulta eguna: 2021/04/07]

Pincus, Rebecca (2020). Three-Way Power Dynamics in the Arctic. *Strategic Studies Quarterly*, 14(1), 40-63. Eskuragarri hemen: [https://www.jstor.org/stable/26891883#metadata\\_info\\_tab\\_contents](https://www.jstor.org/stable/26891883#metadata_info_tab_contents)

Piqué, Josep (2018). El mundo que nos viene - Retos, desafíos y esperanzas del siglo XXI: ¿Un mundo post occidental con valores occidentales? *Deusto*. 107-110



Rainwater, Shiloh (2013). Race to the north: China's Arctic strategy and Its implications. *Naval War College Review*, 66(2), 62-82. Eskuragarri hemen: [https://www.jstor.org/stable/26397372?seq=1#metadata\\_info\\_tab\\_contents](https://www.jstor.org/stable/26397372?seq=1#metadata_info_tab_contents)

Román, Silvia (2021/04/04). "Las lecciones que nos deja el atasco en el Canal de Suez". *El Mundo* [On-line] eskuragarri hemen: <https://www.elmundo.es/internacional/2021/04/04/60689d0dfdddf0d5c8b4571.html> [Kontsulta eguna: 2020/04/07]

Rosales, Cor. Gustavo. (2005). *Geopolítica y geoestrategia liderazgo y poder*. Universidad Militar Nueva Granada, 15-73. Eskuragarri hemen: [https://www.academia.edu/15179434/GEOPOL%C3%8DTICA\\_Y\\_GEOESTRATEGIA\\_LIDERAZGO\\_Y\\_PODER\\_ENSAYOS](https://www.academia.edu/15179434/GEOPOL%C3%8DTICA_Y_GEOESTRATEGIA_LIDERAZGO_Y_PODER_ENSAYOS)

Rose, Gideon (1998). Neoclassical Realism and Theories of Foreign Policy. *World Politics*, 51(1), 144-172. Eskuragarri hemen: <https://www.jstor.org/stable/25054068?seq=1>

Sánchez Andrés, Antonio (2010). Rusia y la geoestrategia del Ártico. *Boletín Elcano*, (124), 7. Eskuragarri hemen: <http://biblioteca.ribei.org/id/eprint/1853/>

Saxena, Abhishek (2020). The Return of Great Power Competition to the Arctic. *The Arctic Institute*. Eskuragarri hemen: <https://www.thearcticinstitute.org/return-great-power-competition-arctic/>

Sergunin, Alexander eta Konyshchev, Valery (2018). Russia's Arctic strategy. In *Russia* (pp. 135-144). Londres: Palgrave Macmillan. Eskuragarri hemen: [https://link.springer.com/chapter/10.1057/978-1-137-56671-3\\_13](https://link.springer.com/chapter/10.1057/978-1-137-56671-3_13)

Shapovalova, Daria, Galimullin, Edouard, eta Grushevenko, Ekaterina (2020). Russian Arctic offshore petroleum governance: The effects of western sanctions and outlook for northern development. *Energy Policy*, 146, Eskuragarri hemen: [https://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S0301421520304766?casa\\_token=TboT9wj1VtQA\\_AAAA:sbGXWYxPH9X-4XzZ\\_K0CfdVpB\\_pQEHwVNqeKQq0jsSAVq2pkq3sdpts9Kmq6GJssCY\\_pYMDZPw](https://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S0301421520304766?casa_token=TboT9wj1VtQA_AAAA:sbGXWYxPH9X-4XzZ_K0CfdVpB_pQEHwVNqeKQq0jsSAVq2pkq3sdpts9Kmq6GJssCY_pYMDZPw)

Sørensen, Camila TN (2015). The Significance of Xi Jinping's "Chinese Dream" for Chinese Foreign Policy: From "Tao Guang Yang Hui" to "Fen Fa You Wei". *Journal of China and International Relations*, 3(1).

Sørensen, Camila TN eta Klimenko, Ekaterina (2017). Emerging Chinese-Russian Cooperation in the Arctic. *SIPRI Policy Paper*, 46.

Stephenson, Scott R. et al. (2013). Projected 21st-century changes to Arctic marine access. *Climatic Change*, 118(3), 885-899. Eskuragarri hemen: <https://link.springer.com/article/10.1007/s10584-012-0685-0> [Kontsulta eguna 2021/03/28]

Stronski, Paul eta Ng, Nicole (2018). *Cooperation and Competition: Russia and China in Central Asia, the Russian Far East, and the Arctic* (Vol. 28). Washington: Carnegie Endowment for International Peace.

Sun, Yun (2018). The Northern Sea Route. The Myth of Sino-Russian Cooperation. *Stimson*. Eskuragarri hemen: <https://www.stimson.org/wp-content/files/file-attachments/Stimson%20-%20The%20Northern%20Sea%20Route%20-%20The%20Myth%20of%20Sino-Russian%20Cooperation.pdf>

Sun, Yun (2020). “Defining The Chinese Threat In The Arctic”, Sanna Kopra (ed.) *Defining The Chinese Threat In The Arctic*. The Arctic Institute (18-20).

The Svalbard Treaty (1920). Paris. Eskuragarri hemen: <https://www.jus.uio.no/english/services/library/treaties/01/1-11/svalbard-treaty.xml>

Trenin, Dmitri (2020). Russia and China in the Arctic: Cooperation, Competition, and Consequences. *Carneige Moscow Center*. Eskuragarri hemen: <https://carnegie.ru/commentary/81407>

Txinako Estatu Kontseilua (2018). *China's Arctic Policy* eskuragarri hemen: [http://english.www.gov.cn/archive/white\\_paper/2018/01/26/content\\_281476026660336.htm](http://english.www.gov.cn/archive/white_paper/2018/01/26/content_281476026660336.htm) [Kontsulta eguna: 2021/02/11]

Tugushev, Anton (2020). The Porto Franco Regime in Canadian and Russian Sea Ports as an Instrument of Socio-Economic Development in the Arctic. *The Arctic Institute*. Eskuragarri hemen: <https://www.thearcticinstitute.org/porto-franco-regime-canadian-russian-sea-ports-instrument-of-socio-economic-development-arctic/>

Turunen, Eeva (2019, Urtarrila). Resources in the Arctic 2019. *Nordregio* [On-line] eskuragarri hemen: <http://nordregio.org/maps/resources-in-the-arctic-2019/> [Kontsulta eguna 2021/01/28]

Unjhwala, Yusuf T. (2020ko Urtarrilak 3). “Russia getting close to China one joint military exercise at a time. India must worry” [On-line] *The Print*. Eskuragarri hemen: <https://theprint.in/opinion/russia-getting-close-to-china-one-joint-military-exercise-at-a-time-india-must-worry/343995/> [Kontsulta eguna: 2021/05/07]

Ventas, Leire (2015eko ). “Cómo Rusia quiere dominar el Ártico”. *BBC Mundo* [On-line] Eskuragarri hemen: [https://www.bbc.com/mundo/noticias/2015/05/150520\\_rusia\\_planes\\_supremacia\\_artico\\_lvh](https://www.bbc.com/mundo/noticias/2015/05/150520_rusia_planes_supremacia_artico_lvh) [Kontsulta eguna: 2021/04/25]

Vinokurov, Evgeny (2018). *Introduction to the Eurasian economic union*. Basingstoke: Palgrave Macmillan. Eskuragarri hemen: <https://link.springer.com/content/pdf/10.1007/978-3-319-92825-8.pdf>

Waltz, Kenneth N. (2007). El hombre, el Estado y la guerra. *Relaciones Internacionales*.

Wan, Zheng, Ge, Jiawei, eta Chen, Jihong (2018). Energy-saving potential and an economic feasibility analysis for an Arctic route between Shanghai and Rotterdam: Case study from China’s largest container sea freight operator. *Sustainability*, 10(4), 921. Eskuragarri hemen: <https://www.mdpi.com/2071-1050/10/4/921/htm> [Kontsulta eguna: 2021/01/28]


Weitz, Richard (2015). Parsing Chinese-Russian Military Exercises. *Army War College Carlisle Barracks Pa Strategic Studies Institute*. Eskuragarri hemen: <https://apps.dtic.mil/sti/citations/ADA616312>

Williams, Laura C. (2017). An Ocean between Us: The Implications of Inconsistencies between the Navigational Laws of Coastal Arctic Council Nations and the United Nations Convention on the Law of the Sea for Arctic Navigation. *Vand. L. Rev.*, 70, 379.

Xinmin, Ma (2019). China's Arctic policy on the basis of international law: Identification, goals, principles and positions. *Marine Policy*, 100, 265-276.


**ERANSKINAK**

**1. Irudia. Artikoko Errekurto Naturalak**



Iturria: Turunen, 2019. Datuak: Nordregio

## 2. Irudia. Artikoko Itsasbideak



Iturria: Tugushev, 2020. Datuak: The Arctic Institute.

## 3. Irudia. Artikoaren Mapa Politikoa



Iturria: Knecht, 2013